



17

DATU PERTSONALEN BABESAren
arloko Jardunbide Egokien Eskuliburua
Euskal Autonomia Erkidegoko
toki erakundeetarako

Ale kopurua: 1500 ale

© **EUDEL. Euskadiko Udalen Elkarte**

Argitaratzailea: **EUDEL. Euskadiko Udalen Elkarte**

Internet: www.eudel.net

Inprimaketa: GRAFILUR S.A.

L.G.: BI-1237-08

Jabetza intelektualaren eskubideak babesten du lan hau. Legeak aitortzen dizkion eskubide guztiak gordeta dauzka, honakoak barne: itzulpena, berrinprimaketa, irrati bidezko, telebista bidezko nahiz Internet bidezko (web orria) transmisioa, erreprodukzio fotomekanikoa edo bestelako erreprodukzioak, bai eta datuak prozesatzeko instalazioetan biltegitratzea ere, nahiz eta lan honen zati bat baino ez erabili.

Jardunbide Egokien Eskuliburu hau egiten parte hartu dute:

Ana Novoa Carbarlido, Vitoria-Gasteizko Udala

Enrique Pascual Antxia, Basauriko Udala

José Antonio Fernández Celada, Ermuko Udala

Javier Aramberri Miranda, Getxoko Udala

José Luis Irigoien Martínez, Eibarko Udala

Julen Urteaga Legarra, Beasaingo Udala

Iñaki Galdeano Larizgoitia, EUDEL

Ignacio Alonso Errazti, EUDEL

Pedro Alberto González González, DBEB

Pablo Lakuntza Amiano, DBEB

Eduarne Barañano Etxebarria, DBEB

Aintzane Osa Alberdi, Euskarazko itzulpena, DBEB

Simón Mesanza Legarda, DBEB



AURKEZPENA

Datuen babesa ez da oso eskubide ezaguna. Gai honen inguruan egin diren azterketa urriek adierazten dutenez, herritarren artean eskubidea nahiko ezezaguna da, eta kontrol agintaritzak daudela ere ez dago oso zabalduta. Euskadiko Udalek ere ez dute gaiarekiko sentiberatasun bera agertzen. Udalen multzo handi batek betebeharrak formalak betetzen ditu (fitxategiak sortu eta aitortu), beste multzo txikiago batek legeak ezartzen dituen gainontzeko betebeharrak ere betetzen ditu, eta, azkenik, badira gutxi batzuk, datuen babesa bertako administrazio jardura guztiak uztartzen dituen zeharkako ardatz hartuta, “antolaketa jardunbideak” ezarri dituztenak. Bestalde, ohartzen gara maiz gertatzen dela udalen betetze maila bat datorrela udalen tamainarekin eta bertako giza baliabideekin eta baliabide materialekin.

Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) udalei aurkezten dien argitalpen berri hau Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin (DBEB) koordinatutako jardura baten emaitza da. Bi erakundeon artean lan talde bat sortzea sustatu genuen, datu pertsonalekin zerikusia duten gaitan udalen jardueren eta jokamoldeen berri izateko eta horien gainean eztabaidatzeko, gertakaririk ohikoenak aztertzeke eta eskubide hau ezartzean beste eskubide batzuekin zor daitezkeen “gatazkak” aztertzeke. Eta guzti hori kontuan izanda, Jardunbide Egokien Eskuliburu bat proposatzen dugu, araudia tokian tokiko egoeretara egokitzea “errazagoa” izan dadin.

Jardunbide Egokien Eskuliburua Euskadiko toki erakundeentzako Ereduzko Kode bat da, eta bere xedea da datu pertsonalen babesaren arloko araudiak ezartzen duena EAEko toki erakundeek egiten dituzten tratamenduen berezitasunetara egokitzea, datu pertsonalen babesaren arloan kontzientziazioa zabaltzen joan dadin bai toki erakundeetan bai bertan lan egiten duten pertsonen artean.



Lan talde honetan EUDELeko, DBEBko eta Vitoria-Gasteizko, Basauriko, Getxoko, Ermuko, Eibarko eta Beasaingo udaletako ordezkariak egon dira. Lan saio eta koordinazio bilera asko egin dira urte bete pasan, eta kide guztiek egin dituzte garrantzi handiko ekarpenak. Gure eskerronik zintzoena adierazi nahi diegu guztiei, Eskuliburua haiei esker gauzatu delako eta Eskuliburuak eskaintzen dituen aukera guztien protagonistak direlako.

Eskuliburu hau DBEBren, EUDELen eta toki erakundeen arteko harremanaren hasiera baino ez da, harremana emankorra izango delakoan, toki erakundeek pribatutasunaren eskubidearekin zerikusia duten antolaketa arloko aldaketa garrantzitsuak bere egin ditzaten. Herritarrek konfiantza handia dute bakoitzak bere udalarengan eta zorroztasun handiz jokatzeko eskatzen diete haien datu pertsonalak tratatzean. Eskuliburua horretarako tresna bat da, eta xedapen zatiaz gain, zenbati liburuxka ere baditu hainbat eredu eta dokumenturekin, ereduzko prozeduren eskemekin eta kasu konkretuekin, udal bakoitzak bere egoerara egokitzeko modukoak.

Orain arte gu izan gara protagonistak: EUDEL, DBEB eta, batez ere, lan taldeko kideak. Orain zuen txanda da. Zuen udalak eta erakundeak Eskuliburuari atxikitzeko eta Eskuliburua bereganatzeko garaia da, bertako jardueretan egokien ikusten dituzten egokitzenak eginez, datuak babesteko eskubidea errespetatzeko eta haiengan jarritako konfiantza sendotzeko.

Jokin Bildarratz Sorron
EUDELeko lehendakaria

Iñaki Vicuña de Nicolás
DBEBren zuzendaria



1. XEDAPEN OROKORRAK

17-24

1. artikulua. Xedea	18
2. artikulua. Ezarpen eremua	18
3. artikulua. Datu pertsonalak	19
4. artikulua. Legedi ezargarría	20
5. artikulua. Definizioak	22
5.1. Oinarrizko kontzeptuak	22
5.2. Segurtasun neurrien arloko kontzeptuak	24

2. HERRITARREN ESKUBIDEAK

25-32

6. artikulua. Fitxategiak nola eta zertarako erabiliko diren jakiteko eskubidea	26
7. artikulua. Atzipen eskubidea	27
8. artikulua. Zuzentzeko eskubidea	28
9. artikulua. Ezerezteko eskubidea	28
10. artikulua. Aurka egiteko eskubidea	29
11. artikulua. Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea	30
12. artikulua. Balorazioak aurkaratzeko eskubidea	31
13. artikulua. Kalte-ordainak jasotzeko eskubidea, pertsonen ondasunei edo eskubideei kalteak edo lesioak eragiteagatik	31
14. artikulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari babesa eskatzea	32





3. ADMINISTRAZIOAREN ETA BERTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

33-66

3.1. BALDINTZA FORMALAK BETETZEA

34

15. artikulua. Fitxategiak sortzea, aldatzea eta ezabatzea 34

16. artikulua. Fitxategiak aitortzea eta inskribatzea 36

3.2. DATU PERTSONALAK BILTZEA ETA TRATATZEA

36

17.artikulua. Norbera da norbere datuen jabea 36

18.artikulua. Kalitatea datu pertsonalen bilketan eta
tratamenduan 37

19.artikulua. Datu pertsonalak mantentzea eta
eguneratzea 37

20.artikulua. Pertsonaren adostasuna 38

21.artikulua. Bereziki babestutako datuak biltzea 39

3.3. PERTSONEN ESKUBIDEAK

40

22. artikulua. Eskubideez baliatzeko erraztasunak
ematea pertsoneri 40





3. ADMINISTRAZIOAREN ETA BERTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK 33-66

3.4. HARREMANAK HIRUGARREN PERTSONEKIN EDO ENTITATEEKIN 41

23. artikulua. Datu pertsonalak atzitzea dakartzan zerbitzu prestazioak kontratatzea	41
23.1. Toki erakundearen fitxategiak atzitzea dakarren zerbitzu bat enkargatzea	41
23.2. Hirugarren pertsona edo entitate bati zerbitzu bat, enkargatzearren, hirugarren horrek administrazioaren datu pertsonalak atzitu ahal izatea	44

3.5. FITXATEGIEN SEGURTASUN NEURRIAK 45

24. artikulua. Fitxategi motak eta segurtasun mailak	45
25. artikulua. Datu pertsonalak tratatzen dituzten pertsonen eginkizunak eta betebeharrak	46
26. artikulua. Segurtasun agiria	48
27. artikulua. Datu pertsonalak atzitzeko bidea duten langileei euren betebeharrak jakinaraztea	49
28. artikulua. Identifikazio eta autentifikazio sistemak	49
29. artikulua. Aplikazio informatikoetarako sarbide kontrola	50
30. artikulua. Goi-mailako fitxategietako sarreraren erregistroa	51
31. artikulua. Informazioa duten ekipoen kokatuta dauden egoitzetan sartzea	52
32. artikulua. Datuak saretik atzitzea	52





3. ADMINISTRAZIOAREN ETA BERTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

33-66

3.5. FITXATEGIEN SEGURTASUN NEURRIAK

45

33. artikulua. Lan erregimena lan estazioetan edo eramangarrietan	52
34. artikulua. Euskarrien kudeaketa	53
35. artikulua. Babes kopiak eta datuak berreskuratzea	53
36. artikulua. Aldi baterako fitxategiak, dokumentuen lanerako kopiak eta probak benetako datuekin	54
37. artikulua. Segurtasun gorabeheren erregistroa	55
38. artikulua. Datuen zirkuitua paper-euskarrian eta kopiak suntsitzea	56
39. artikulua. Auditoriak	56
40. artikulua. Automatizatu gabeko fitxategiekin nola jokatu	57
40.1. Nola jokatu oinarrizko mailadun fitxategi automatizatu gabeekin	57
40.2. Nola jokatu oinarrizko mailadun fitxategi automatizatu gabeekin	57
40.3. Nola jokatu gol-mallako fitxategi automatizatu gabeekin	58

3.6. DATU PERTSONALAK LAGATZEA EDO KOMUNIKATZEA

59

41. artikulua. Lanbide sekretua gorde beharra	59
---	----





3. ADMINISTRAZIOAREN ETA BERTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

33-66

3.6. DATU PERTSONALAK LAGATZEA EDO KOMUNIKATZEA

59

42. artikulua.	Datuen komunikazioetan bete beharrekoak	60
43. artikulua.	Interesdunaren adostasuna behar duten datu lagatzeetarako prozedurak	62
44. artikulua.	Interesdunaren adostasuna behar ez duten datu lagatzeetan bete beharreko prozedurak	63
45. artikulua.	Udal erroldako datuak erabiltzea eta tratatzea	64
45.1.	Udal erroldaren xedea	64
45.2.	Beste administrazio batzuei datuak lagatzea alde z aurreko adostasunik gabe, legezko lagatzeak direlako	64
45.3.	Ukituaren adostasunik gabe egin daitezkeen udal erroldaren beste datu lagatze batzuk	65
45.4.	Departamentuen arteko datu lagatzeak	66





4. DATU PERTSONALAK BABESTEKO ESKUBIDEA BESTE ESKUBIDE BATZUEKIN BATERA

67-78

4.1. DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEA ETA INFORMAZIOA ATZITZEKO ESKUBIDEA

68

- | | |
|---|----|
| 46. artikulua. Informazioa atzitzeko eskubidea | 68 |
| 47. artikulua. Informazioa atzitzeko eskubideaz baliatzea | 69 |
| 47.1. Izapidetzen ari diren espedienteetako dokumentazioa atzitzea | 70 |
| 47.2. Bukatutako espedienteetako dokumentazioa atzitzeko eskubidea | 70 |
| 47.3. Informazioa atzitzeko eskubidea ukatzea | 71 |
| 48. artikulua. Atzipen eskubideaz baliatzea bitarteko elektronikoen bidez | 71 |

4.2. DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEA ETA ARGITALPENA

73

- | | |
|---|----|
| 49. artikulua. Administrazio egintzen argitalpena eta hedapena | 73 |
| 50. artikulua. Norgehiagoka prozesuen argitalpena eta datuen babesa | 74 |





4. DATU PERTSONALAK BABESTEKO ESKUBIDEA BESTE ESKUBIDE BATZUEKIN BATERA

67-78

4.3. DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEA ETA ARGITALPENA

75

51. artikulua. Toki erakundeko kideek informazioa eskatzea eta datuak babestea 75
52. artikulua. Erabakiak argitaratzea eta herritarren parte hartzea toki erakundeetako udalbatzetan 77

5. KASU KONKRETUAK

79-80

53. artikulua. Nola jokatu toki erakundeetan datu pertsonalak tratatzeko orduan gertatzen diren egoera jakin batzuen aurrean 80

6. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA

81-84

54. artikulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa 82
55. artikulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jarduerak 83





7. ESKULIBURUA EREDUZKO ARAU-BILDUMA BAT DA

85-90

56. artikulua.	EAEko toki erakundeen Ereduzko Arau Bilduma	86
57. artikulua.	Erakunde sustatzailea, gordailua eta argitalpena	86
58. artikulua.	Jardunbide Egokien Eskuliburu honi atxikitzea	87
59. artikulua.	Eskuliburu edo Ereduzko Arau-bildumari atxikitzeko erabakian hartutako betebeharrak betetzen direla gainbegiratzeko prozedura	88
60. artikulua.	Datuen babesaren arloko informazio eta prestakuntza jarduerak	88
61. artikulua.	Jardunbide Egokien Eskuliburuari atxikita dauden administrazioak identifikatzeko <i>konfidentzialtasun zigilu</i> bat ezartzea	89

INDARREAN SARTZEA ETA EGUNERATZEAK

91-92





XEDAPEN
OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

- 1 Jardunbide Egokien Eskuliburu honen xedea da **arautzea nola tratatu behar dituzten datu pertsonalak** Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eremuan dauden **toki erakundeek**, toki erakunde horien menpeko erakunde autonomoek eta horien menpeko nahiz horiei lotutako sozietateek, baldin eta kapitalaren zatirik handiena publikoa bada eta ahal publikoak betetzen badituzte (aurrerantzean EAEko toki erakundeak edo toki erakundeak), eta arautzearen helburua da erakunde horiekin harremanak dituzten **herritarren askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak bermatzea eta babestea**, bereziki bermatu eta babestuz herritarren **ohore eskubidea eta intimitate pertsonalerako nahiz familia intimitaterako eskubidea**, hori guzti hori Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan eta bera garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera.
- 2 Era berean, eskuliburuaren xedea da EAEko toki administrazioen zerbitzura ari diren langileei informazioa erraztuko dien Ereduzko Arau Bilduma edo Gida Praktikoa izatea, herritarrekin dituzten harremanetan, datu pertsonalen tratamenduaren arloan nola jardun behar duten azalduz.

2. artikulua. Ezarpen eremua

- 1 Eskuliburu hau EAEko toki administrazioen fitxategi automatizatu edo ez automatizatuetan jasotako datu pertsonalen tratamendu guztiei eta datu horien geroko erabilera modalitate guztiei ezarriko zaie.
- 2 Jardunbide Egokien Eskuliburu edo Ereduzko Arau Bilduma honi atxikitzea borondatezko aukera da EAEko toki erakundeentzat; izan ere, atxiki ala ez, berdin-berdin bete beharko dute datuen babesaren arloan indarrean dagoen legedia. Toki erakunde bat Jardunbide Egokien Eskuliburu edo Ereduzko Arau Bilduma honi atxikitzen bazaio, ezinbestean bete beharko du bertan jasotakoa.

Eskuliburu honi atxikitzea borondatezko aukera da EAEko toki erakundeentzat, eta atxiki ala ez, berdin-berdin bete beharko dute datuen babesaren arloan indarrean dagoen legedia

3. artikulua. Datu pertsonalak

1 Toki erakundeetan egunero erabiltzen dira datu pertsonalak. Datu horiek hiritarrei, toki administrazio bakoitzeko langileei, enpresa-hornitzaileei eta abarrei buruzkoak izan ohi dira nagusiki.

2 Toki administrazioek datu pertsonalak dituzten fitxategiak sortu behar dituzte eta datu horiek kudeatu behar dituzte esleituta dauzkaten eskumenez baliatzeko. Era berean, **datu pertsonalak babesteko araudia bete behar dute** harremana duten pertsonen **datuak eskatzean, jasotzean, tratatzean, erabiltzean edo lagatzean**. Gainera, oinarritzko eskubide berri bat denez, bitartekoak jarri beharko dira entitate horien prozeduretan eta haien zerbitzura ari diren langileen artean datuak babesteari buruzko kultura berria hedatzeko.

Entitateek bitartekoak
jarri beharko dituzte
datuak babesteari
buruzko kultura
berria hedatzeko

3 EAEko toki erakundeek **Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (aurrerantzean DBEB)** aitortu behar dituzte bertako fitxategiak, fitxategi horietan jaso beharreko datu pertsonalak biltzen hasi baino lehen, eta arreta berezia jarri beharko dute pertsona horiek emandako onespenean, jasotzen diren datuak bereziki babestuak badira.



1 **V. Eranskinak** datu pertsonalak babesteari buruzko legedia eta araudia jasotzen ditu. Bertan daude bilduta EAEko toki erakundeek bete behar dituzten arau garrantzitsuenak:

- 1995eko urriaren 24ko 95/46/CE Zuzentaraua, datu pertsonalen babesaren arloan pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta datu horien zirkulazio libreari buruzkoa.
- Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (aurrerantzean DBLO).
- Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea.
- Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua.
- Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duen 308/2005 Dekretua (2005eko azaroaren 16ko EHAA).
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duen urriaren 18ko 309/2005 Dekretua (2005eko azaroaren 9ko EHAA).
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Datuak Babesteko Erregistroan fitxategiak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko inskripzioa eskatzeko eredu normalizatuak eta bitartekoak ezartzen dituen Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren uztailaren 21eko Ebazpena.
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa garatzeko Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren 2005eko azaroaren 28ko Ebazpena.

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Informazio gizartearen zerbitzuei eta merkataritza elektronikoari buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea.
- Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorra.
- Hiritarrak elektronikaren bidez Zerbitzu Publikoetara heltzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea.

2 Jardunbide Egokien Eskuliburu hau indarrean sartu ondoren, legeren edo araturen bat aldatzen bada, ulertu beharko da bertan egiten diren aipamenak berdin-berdin egiten zaizkiela lege edo arau berriei ere.



**Jardunbide
Egokien
Eskuliburu hau
aldian-aldian
eguneratuko da**

3 Jardunbide Egokien Eskuliburu hau aldian-aldian eguneratuko da, egon daitezkeen legezko edo arauzko eskakizunen arabera, Azken Xedapenean ezarritakoari jarraituz.

1 Oinarrizko kontzeptuak

• Datu pertsonalak

Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio (zenbakizkoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo beste edozein motatakoa).

• Pertsona identifikagarria

Zuzenean edo zeharka, nor den jakin daitekeen pertsona fisikoa, bereziki bere nortasun fisiko, psikiko, ekonomiko, kultural edo sozialari dagozkion ezaugarri bat edo gehiago erabiliz. Pertsona fisiko bat ez da joko identifikagarritzat identifikaziorako neurriz kanpoko epeak edo jarduerak behar badira.

• Bereziki babestutako datuak

Ideologiari, erlijioari, sinesmenei, sindikatu afiliazioari, arrazari, osasunari, bizitza sexualari eta arau-hauste penal nahiz administratiboei buruzko datuak dira.

• Fitxategia

Datu pertsonalei buruzko informazio-multzo egituratua, edozein dela sortzeko, biltegitratzeko, antolatzeko eta atzitzeko era edo modalitatea.

• Datuen tratamendua

Modu automatizatuan edo ez automatizatuan egiten diren operazio edo prozedura teknikoak dira, eta datuak jaso, grabatu, gorde, landu, aldatu, blokeatu eta indargabetzea ahalbideratzen dute, bai eta komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik etorritako datuak lagatzea ere.

• Ukitua edo interesduna

Pertsona fisiko bat da eta tratatu beharreko datu pertsonalak berari buruzkoak dira.

• Disoziazio prozedura

Datu pertsonalen tratamendu oro, baldin eta lortzen den informazioa ezin bada lotu pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri batekin.

• Barneko arduraduna

Administrazioaren zerbitzura ari den pertsona, organo eskumendunak eskuordetuta tratamendu kontrolatzailea den pertsonaren zereginak egiten dituen.

• Tratamenduaren arduraduna

Bere aldetik edo beste batzuekin batera, administrazio interesdunaren kontura datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisiko nahiz juridikoa, agintari publiko, zerbitzu nahiz bestelako erakundea da.

• Interesdunaren adostasuna

Interesdunaren borondate-adierazpen askea, argia, berariazkoa eta informatua da, berari buruzko datu pertsonalak tratatzeko adostasuna adierazteko.

• Datuak lagatzea edo komunikatzea

Interesduna ez den beste pertsona bati datuen berri ematea.



- **Hartzailea edo datuen lagapen-hartzailea:**

Datuen berri ematen zaion pertsona fisikoa nahiz juridikoa, publikoa nahiz pribatua edo administrazio organoa. Nortasun juridikorik gabeko enteak badira, eta subjektu berezitu moduan parte hartzen badute datuen trafikoan, ente horietako pertsona edo pertsonak hirugarrentzat joko dira.

- **Hirugarrena**

Pertsona fisikoa nahiz juridikoa, agintari publikoa nahiz pribatua edo administrazio organoa da, ondoko hauekiko bat ez dena: interesduna, tratamenduaren barneko kontrolatzailea, tratamenduaren arduraduna edo tratamenduaren barneko kontrolatzailearen edo tratamenduaren arduradunaren zuzeneko ardurapean datuak tratatzeko baimena duen pertsona. Nortasun juridikorik gabeko enteak badira, eta subjektu berezitu moduan parte hartzen badute datuen trafikoan, ente horietako pertsona edo pertsonak hirugarrentzat joko dira.

- **Jendearen eskurako iturriak**

Edozein pertsonak kontsulta dezakeen fitxategia, baldin eta arau murriztaileren batek hori eragozten ez badio, edo kontsulta egiteko betekizun bakar gisa ezarritako kontraprestazioa ordaintzen badu. Honakoak bakarrik dira jendearen eskurako iturri: sustapen errolda; telefono zerrendak, arloko araudiak aurreikusitako moduan, eta lanbide taldeetara bildutako pertsonen zerrendak, baldin eta zerrendetan jasotzen diren datu bakarrak halako pertsonen izena, titulua, lanbidea, jarduera, ikasketa maila, helbidea eta taldekide izaeraren aipamena badira. Era berean, jendaurreko eskurako iturriak dira egunkari eta aldizkari ofizialak eta komunikabideak.

2 Segurtasun neurrien arloko kontzeptuak

● Informazio sistemak

Datu pertsonalak tratatzeko eta biltegitratzeko erabili ohi diren fitxategi automatizatuak, programak, euskarriak eta ekipak.

● Erabiltzailea

Datuak edo baliabideak erabiltzeko baimena duen pertsona edo prozesua.

● Baliabidea

Informazio sistema baten edozein osagai.

● Baimendutako atzipenak

Erabiltzaile bati emandako baimenak, zenbait baliabide erabil ditzan.

● Identifikazioa

Erabiltzaile baten identitatea jakiteko ezagutze prozedura.

● Autentifikazioa

Erabiltzaile baten identitatea egiaztatzeko ezagutze prozedura.

● Sarbide kontrola

Erabiltzailearen identitatea autentifikatu eta identifikatu ondoren datuak edo baliabideak atzitzen uzten duen mekanismoa.

● Pasahitza

Erabiltzaile bat autentifikatzeko erabil daitekeen isilpeko informazioa, karaktere-kate batez osatuta egon ohi dena.

● Segurtasun gorabehera

Datuen segurtasunari eragiten dion edo eragin diezaiokeen edozein irregulartasun.

● Blokeoa

Datu pertsonalak identifikatzea eta erreserbatzea, trata ez daitezen. Blokeatutako datu pertsonalak administrazio publikoen, epaileen eta auzitegien esku geratzen dira, tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunei erantzun ahal izateko, baina beti ere erantzukizunaren preskripzio epearen barruan.

● Ezabatzea edo kentzea

Blokeatutako datu pertsonalak fisikoki deuseztatzea, datu horiek tratatzearen ondorioz sor zitezkeen erantzukizunaren preskripzio epea igaro ostean.

● Euskarria

Informazio sistema baten bidez tratatu daitekeen objektu fisiko bat da eta bertan datuak grabatu nahiz berreskuratu daitezke.

● Segurtasun arduraduna

Tratamenduaren kontrolatzaileak izendatutako pertsona edo pertsonak, aplikatu beharreko segurtasun neurriak koordinatu eta kontrolatzeko.

● Babes kopia

Fitxategi automatizatu bateko datuak kopiatzea datu horiek berreskuratzeke aukera ematen duen euskarri batean.



HERRITARREN ESKUBIDEAK

6. artikulua. Fitxategiak nola eta zertarako erabiliko diren jakiteko eskubidea

1 **Toki erakundeek**, norbaiti datu pertsonalak eskatu baino lehen, ezinbestean eman beharko diote ondoko **informazioa berariaz**, zehatz eta argi:

- a) Datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu bat dagoela, datuak zertarako biltzen dituen eta informazioaren hartzaileak nor edo nortzuk diren.
- b) Egiten zaizkion galderak derrigorrez ala borondatez erantzutekoak diren.
- c) Datuak ematearen edo ukatzearen ondorioak.
- d) Atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera duela.
- e) Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta helbidea.

2 DBLOren 5. artikulua xedatzen du ez dela beharrezkoa izango b), c) eta d) idatz-zatietan jasotzen den informazioa ematea, baldin eta informazio hori argi ondorioztatzen bada eskatzen diren datuak ikusita edo datu eskea zein egoeratan egiten den ikusita. Hala eta guztiz ere, interesdunei beti adieraziko zaie datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko aukera dutela, bai eta eskubideok zein organoren aurrean erabil ditzaketen ere.

3 Informazio hori emateko, datuak jasotzeko erabili den sistemarekin bateragarria den moduren bat erabiliko da. Adibidez, datuak galde-sorta edo inprimaki baten bidez jasotzen badira, informazioa eta ohartarazpenak argi agertuko dira galde-sorta edo inprimakietan, eta ahal bada, dokumentuaren beste edukietarako erabili den letra mota eta tamaina berean egongo dira.

**Pertsonen
eskubideei buruzko
informazioa eta
ohartarazpenak argi
adierazi beharko
dira**

- 4 Dokumentuaren diseinua edo antolamendua dela eta, letra mota eta tamaina txikiagoa erabili beharra badago, informazioa osatu egin beharko da, herritarren arretarako bulegoetako leku ageri eta egoki batean txartelak ipinita, eta, dena delako toki erakundeak web orririk izanez gero, informazio hori guztia bertan argitaratuta.
- 5 Datu pertsonalak **ez badira interesdunarengandik jaso, toki administrazioak interesdunari informazioa eman beharko dio berariaz**, zehatz eta argi datuak erregistratu eta hurrengo hiru hilabeteren barruan. Ez dio informaziorik eman beharko, baldin eta lehenagotik ere adierazi badizkio honakoak: tratamenduaren edukia, datuen jatorria, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea eta tratamenduaren arduradunaren identitatea eta helbidea.
- 6 Informazio eskubidea erabatekoa izan dadin, **toki administrazioak Jarduera Egokien Eskuliburu honen berri eman beharko du** datu pertsonalak inprimaki bidez jasotzen dituenean, eta horrez gain, adierazi beharko du Eskuliburu hau non dagoen kokatuta Interneten: toki erakundearen beraren web orrian, baldin badauka, EUDELelean eta DBEBrelean, nahi duenak kontsulta dezan.
- 7 **II. Eranskinetako M1.1, M1.2 eta M1.3 Eranskinetan** jasota daude informazioa jasotzean, hormetan jartzeko txarteletan eta hautaketa prozesuetan erabiltzeko informazio klausulen ereduak.

7. artikulua. Atzipen eskubidea

Herritarrak eskubidea du toki administrazioari bere datu pertsonalei buruzko informazioa eskatzeko eta jasotzeko

- 1 Herritarrak eskubidea du bere toki administrazioari eskatzeko bertan tratatzen dituzten berari buruzko datu pertsonalen gaineko informazioa, zein den datu horien jatorria eta datu horiekin zeintzuk komunikazio egin diren eta zeintzuk egitea aurreikusten den. Eta informazio hori jasotzeko eskubidea du.

2 Artikulu honetan aipatzen den **atzipen eskubidea hamabi hilabeteko denbora tarteetan edo handiagoetan** bakarrik erabil daiteke. Edozelan ere, salbuespena egingo da interesdunak interes legitimoa egiaztatzen badu, eta eskubidea lehenago erabili ahal izango du.

3 **II. Eranskinean (M2)** atzipen eskubidea erabiltzeko inprimaki eredu bat dago eta bertan daude jasota atzipen eskubidea erabiltzeko aplikatzen den araudia eta eskubidea erabili, izapidetu eta erantzuteko baldintzak eta epeak.

8. artikulua. Zuzentzeko eskubidea

1 **Datuen titularrak** seguru dakienean fitxategi batean tratatzen dituzten bere datu pertsonalak ez direla zehatzak, ez direla egokiak, ez daudela osorik eta gehiegizkoak direla, **toki erakundeari eskatu ahal izango dio datu horiek arztezu, zuzendu edo osatzeko, eta toki entitateak eskatutakoa egin beharko du.**

2 **II. Eranskinean (M3)** zuzentzeko eskubidea erabiltzeko inprimaki eredu bat dago eta bertan daude jasota zuzentzeko eskubidea erabiltzeko aplikatzen den araudia eta eskubidea erabili, izapidetu eta erantzuteko baldintzak eta epeak.

9. artikulua. Ezerezteko eskubidea

1 Datuen titularrak datuak ezerezteko eskatu ahal izango dio toki erakundeari eta toki erakundeak eskatutakoa egin beharko du baldin eta:

- Datuak ez badira beharrezkoak eta bereizleak hasierako helbururako.
- Datuak bildu zirenean zegoen helburua betetzeko behar zen epealdia igaro bada.

2 Hala ere, datu pertsonalak **gorde egin beharko dira** xedapen ezargarrietan **ezarritako epeak** edo interesatuaren eta tratamenduaren ardura duen entitatearen edo pertsonaren arteko kontratu-harremanetan ezarritako epeak **irauten duten bitartean**.

3 **II. Eranskinean (M4)** ezerezteko eskubideaz baliatzeko inprimaki eredu bat dago eta bertan daude jasota ezerezteko eskubideaz baliatzeko aplikatzen den araudia eta eskubidea erabili, izapidetu eta erantzuteko baldintzak eta epeak.

**Datuak bildu zirenean
zegoen helburua
betetzen denean,
nahitaezkoa izango da
datu horiek ezereztea.
Horretarako, lehendabizi,
eta hala badagokio,
datuak blokeatuko dira,
eta gero, datuak ezereztu**

10. artikulua. Aurka egiteko eskubidea

1 Herritarrak toki administrazioak egiten duen datu tratamendu bati aurka egiteko eskubidea du, aldez aurreko adostasuna beharrezkoa ez den kasuetan ere, baldin eta herritarraren egoera pertsonala dela-eta arrazoi sendo eta legitimoak badaude.

2 Interesdunak edonoiz egin diezaioke aurka datu tratamendu bati, nahiz eta aurretik adostasun agertu izan (adostasuna beharrezkoa den kasuetan).

3 **II. Eranskinean (M5)** aurka egiteko eskubideaz baliatzeko inprimaki eredu bat dago eta bertan daude jasota aurka egiteko eskubideaz baliatzeko aplikatzen den araudia eta eskubidea erabili, izapidetu eta erantzuteko baldintzak eta epeak.



11. artikulua. Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea

1 Datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko edo aurka egiteko **eskaerak idatziz** egin beharko dira, dagokion toki erakundeko **tratamendu kontrolatzaileari** zuzenduko zaizkio eta Erregistro Orokorrean utzita edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean jasotzen diren bestelako bitartekoak erabilia aurkeztu beharko dira.

2 Datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak guztiz pertsonalak dira eta interesdunak berak bakarrik erabil ditzake. Hala ere, interesdunak ezin baditu eskubideak berak pertsonalki erabili, legezko ezgaitasunagatik edo adin gabekoa izateagatik, legezko ordezkari bat izenda dezake bere ordezkari jarduteko, eta horrelakoetan legezko ordezkariak nahitaez egiaztatu beharko du ordezkaria dela.

Datu pertsonalak
Atzitzeko,
Zuzentzeko,
Ezerezteko
eta
Aurka egiteko
eskubideak doakoak dira eta
behar bezala izendatutako
ordezkari baten bidez erabili
daitezke adin gabekoen edo
legezko ezgaituen kasuan

3 Ez da ordaindu beharrik izango datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko edo aurka egiteko eskubideez baliatzeko.

12. artikulua. Balorazioak aurkaratzeko eskubidea

Interesdunek toki administrazioak egindako balorazioak aurkaratzeko eskubidea izango dute, baldin eta balorazioen oinarrian nortasunaren zenbait ezaugarri ebaluatzeko asmoarekin egindako datu tratamendu bat badago, eta balorazio horretan oinarrituta hartutako erabakiak eragin handia badu beraian. Inpugnazioa aurka egiteko eskubidea bezala erabiliko da.

13. artikulua. Kalte-ordainak jasotzeko eskubidea, pertsonen ondasunei edo eskubideei kalteak edo lesioak eragiteagatik

Interesatuak kalteren bat edo lesioren bat jasotzen badute euren ondasun edo eskubideetan, tratamenduaren kontrolatzaileak edo tratamenduaren arduradunak datuak babesteari buruzko araudia ez duelako bete, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango dute. Erantzukizun hau eskatzeko, administrazio publikoen erantzukizun erregimena arautzen duen legediak xedatutakoa hartuko da kontuan.

14. artikulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari babesa eskatzea

1 Edozein pertsonak eska diezaioke Datuak Babesteko Euskal Bulegoari bere eskubideak babesteko prozedura bat hasteko, baldin eta pertsona horri oso-
osorik edo zati batean ukatu badiote datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko
edo aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera edo pertsona horrek uste
badu ez diotela erraztu edo kontuan hartu eskubidea erabiltzeko aukera.

2 DBEBren web orrian (www.avpd.es) “Herritarrak” atalean daude eskuragarri eskubideak babesteko prozedura hasteko eskabide-ereduak.

Norbaiti ukatzen badiote datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko edo aurka egiteko eskubideez baliatzeko aukera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren babesa eska dezake



ADMINISTRAZIOAREN ETA BERTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

3.1. BALDINTZA FORMALAK BETETZEA

15. artikulua. Fitxategiak sortzea, aldatzea eta ezabatzea

1 Toki administrazioko organo eskudunak sortu, aldatu edo ezaba ditzake fitxategiak. Fitxategiak onartzen dituen ebazpena edo erabakia **Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.**

2 Fitxategiak sortzeko edo aldatzeko xedapenek honakoak adierazi beharko dituzte:

- Fitxategiaren identifikazioa eta helburua eta fitxategi horretarako aurreikusi diren erabilerak.
- Zeintzuk pertsona edo kolektibori buruzko datuak eskuratu nahi diren edo zeintzuk pertsona edo kolektibo dauden datuak ematera behartuta.
- Datu pertsonalak jasotzeko erabiliko den prozedura.
- Fitxategiaren oinarritzko egitura.
- Bertan jasoko diren datu pertsonal moten deskribapena.
- Datu pertsonalen lagapenak.
- Hirugarren herrialdeetara egiteko aurreikusten diren datu transferentziak, halakorik aurreikusten bada.
- Fitxategiaren tratamendu kontrolatzailea izango den toki entitatea edo organoa.
- Zein zerbitzu, atal, unitate, organo edo karguren aurrean erabil daitezkeen datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak.
- Goi-mailako, maila ertaineko ala oinarritzko segurtasun neurriak behar dituen.

3 Fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatzeko ordenantza eredu bat dago eskuragarri **II. Eranskinean (M6)**. Horrez gain, fitxategia sortu edo aldatzen bada, fitxategi bakoitzeko ordenantzarekin batera aurkeztu behar diren eranskin ereduak ere badaude eskuragarri **II. Eranskinean (M7)**.

4 Toki erakunde batek ez badauka oso argi fitxategi bat sortzea komeni den ala ez, eta ez badaki fitxategia nola sortu, toki erakundeak, xedapen orokorra onartu aurretik, horren inguruko txosten bat eskatu ahal izango dio DBEBri. Horretarako, **II. Eranskineko M8** dokumentua erabili beharko da eskaera eredu moduan. Eskaerarekin batera, onartu nahi den arauaren proiektua aurkeztu beharko da, bai eta memoria bat ere, argitzeko eskatzen diren zalantzekin.



Toki erakunde batek ez badauka oso argi fitxategi bat sortzea komeni den ala ez, eta ez badaki fitxategia nola sortu, toki erakundeak, xedapen orokorra onartu aurretik, horren inguruko txosten bat eskatu ahal izango dio DBEBri

16. artikulua. Fitxategiak aitortzea eta inskribatzea

Fitxategia sortzen duen ebazpena Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, DBEBri jakinaraziko zaio Datuak Babesteko Erregistroan inskribatu dezan. BDEBren web orrian autoaitorpena egiteko programa bat dago eskuragarri, bai eta inprimakiak betetzeko jarraibideak ere. Horiez gain, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren web orrian **aukera dago EAEko toki administrazioek sortutako eta aitortutako fitxategien ezaugarriak kontsultatzeko**. Fitxategi bat DBEBri jakinaraziz gero, ulertuko da Datuak Babesteko Espainiako Agentziari ere jakinarazi zaiola, DBEB arduratuko baita Espainiako Agentziari informazioa bidaltzeaz.

3.2. DATU PERTSONALAK BILTZEA ETA TRATATZEA

17. artikulua. Norbera da norbere datuen jabea

1

EAEko toki administrazioek uneoro izan behar dute kontuan datu pertsonalak beti direla pertsona jakin bati buruzkoak eta pertsona hori dela datuen jabea, eta pertsona horrek bakarrik hartu ahal dituela datu horien gaineko erabakiak. Toki erakundeek behar bezala ahalmentuta egon behar dute datu horiek erabiltzeko, eta ahalmentutako helburuetarako baino ezin izango dituzte erabili. Bestalde, ezinbestean bete beharko dute datu pertsonalak babesteko araudia.

Datu pertsonalak beti dira pertsona jakin bati buruzkoak eta pertsona hori da datuen jabea. Datu horiek legea betez eta zintzo jokatzuz eta helburu jakin, esplizitu eta legítimoak gauzatzeko bakarrik bildu ahal izango dira

2

Datu pertsonalak biltzeko, legea betez eta zintzo jokatu beharko da. Beraz, debekatuta dago datuak biltzea iruzurrezko, gezurrezko edo legez kontrako bitartekoez.

3

Datu pertsonalak bakar-bakarrik bildu ahal izango dira helburu jakin, zehatz, esplizitu eta legítimoak gauzatzeko.

18. artikulua. Kalitatea datu pertsonalen bilketan eta tratamenduan

- 1 Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.

Eskatzen diren datuak egokiak, bereizleak eta neurrikoak izan behar dira eskatu diren helbururako

- 2 Tratatu beharreko datu pertsonalak **ezin izango dira erabili** datu horiek biltzeko ezarri ziren helburuekin **bateraezinak diren bestelako helburuetarako**. Ez dira joko helburu bateraezintzat datu horiekin gero egiten diren tratamenduak, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako badira.

19. artikulua. Datu pertsonalak mantentzea eta eguneratzea

- 1 Datu pertsonalak **zehatzak eta eguneratuak izango dira**, eta baliokoak interesdunaren egungo egoerarako. Erregistratuta dauden datu pertsonalak ez badira zehatzak, osotasunean edo zati batean, edo ez badira egokiak eta osoak edo gehiegizkoak badira, ofizioz ezereztu eta aldatuko dira datu zuzenduak edo datu osoak jasoz, alde batera utzita DBLOaren 8. artikulua eta hurrengoek interesdunei aitortzen dizkien bestelako eskubideak.
- 2 Datu pertsonalak **ezereztu egingo dira** jaso zirenean edo erregistratu zirenean zegoen helbururako **beharrezkoak edo bereizleak ez badira** edo jaso zirenean zeuden helburuak betetzeko aldia igaro bada.

1 Datu pertsonalen tratamenduak **interesdunaren adostasun garbia** beharko du, legeak besterik xedatu ezean.

2 Ez da beharko aldez aurreko adostasuna honako kasuetan:

- Aldez aurreko **adostasunik ez dela behar dioen lege bat badago** eta, ondorioz, datu horiek biltzen badira dena delako toki erakundeak bere eskumeneko arloetan jarduteko. Era berean, ez da adostasunik beharko, kontratu bat edo negozio harreman, lan harreman edo harreman administratiborik badago eta datu horiek ezinbestekoak badira horiek mantentzeko edo betetzeko.
- **Datuen tratamenduaren helburua interesdunarentzako berebiziko interes bat babestea bada**, adibidez, prebentziorako, mediku diagnostikorako edo mediku tratamendurako, asistentzia prestaziorako edo osasun zerbitzuen kudeaketarako; eta tratamendua lanbide-sekretuari lotuta dagoen pertsonal sanitarioak edo sekretu betebeharrak baliokidea duen beste pertsona batek egiten badu.
- **Datuak jendearen eskurako iturrietan badaude** eta datu horien tratamendua ezinbestekoa bada toki erakundearen, tratamendu kontrolatzailearen eta datuen hartzailearen interes legitimo bat asetzeko, eta beti ere, ez badira interesdunaren oinarritzko eskubideak urratzen.

3 Herritarren **baimena ezinbestekoa den kasuetan, herritarrek adostasun eza adierazteko eskubidea dute.**

4 **Adostasuna atzera bota ahal izango da** baldin eta ondo justifikatutako arrazoiak badaude eta atzeraeraginezko ondorioz ez badu sortzen. Adostasuna atzera botatzeko, idatzi bat aurkeztu beharko zaio tratamenduaren kontrolatzaileari erabaki horren berri emanez, eta tratamenduaren kontrolatzaileak, adostasuna atzera botatzeko eskaera jaso eta hurrengo hamar egun naturaleko epean erantzun beharko du, eta, hala badagokio, epe horren barruan gauzatuko du atzera botatzea. Zenbait datuen tratamendua egiteko adostasuna atzera botatzen bada, eta datu horiek jadanik komunikatu badira, datuak komunikatu dituen toki erakundeak adostasuna atzera bota dela jakinarazi beharko dio dena delakoari, beti ere azken horrek datu horiek tratatzen segitzen badu.

- 5 Berariazko adostasuna agertzeko eta adostasuna atzera botatzeko ereduak daude **II. Eranskinean: (M9)** eta **(M10)**, hurrenez hurren.

21. artikulua. Bereziki babestutako datuak biltzea

- 1 **Osasunari buruzko datu pertsonalak** eskatu eta tratatu ahal izango dira bakar-bakarrik lege batek, interes orokorreko arrazoiak direla medio, datu horiek eska daitezkeela xedatzen badu edo interesdunak ageriko adostasuna adierazten badu. Toki administrazioetan bertako langileen osasunaz arduratzen diren langileek aukera izango dute atenditzen dituzten langile horien osasunari buruzko datu pertsonalak eskatzeko, baina beti ere osasun arloan eta osasuna babestearen eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera.

- 2 Ideologiari, erlijioari, sinesmenei eta sindikatu afiliazioari buruzko datuen tratamenduak interesdunaren ageriko eta idatzizko adostasuna behar du. **Bizitza sexualari, osasunari edo arrazari buruzko datu pertsonalak** bakar-bakarrik eskuratu, tratatu edo laga ahal izango dira legeren batek, interes orokorreko arrazoiak direla medio, hala xedatzen badu edo interesdunak berariaz adierazten badu adostasuna. Interesdunaren ideologiari, erlijioari edo sinesmenei buruzko datuak eskatzen badira, interesdunari jakinarazi beharko zaio datu horiek tratatzeko adostasun eza adierazteko eskubidea duela.

Berariazko eta idatzizko adostasunaren beharra dago pertsonaren ideologiari, erlijioari, sinesmenei eta sindikatu afiliazioari buruzko datuak jasotzeko



3.3. PERTSONEN ESKUBIDEAK

22. artikulua. Eskubideez baliatzeko erraztasunak ematea pertsonei

1

Toki erakundeek, 6. artikuluan eta hurrengoetan jasotako eskubideak erabiltzen uzteaz gain, erraztasunak emango dituzte. Horretarako, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erraztasunez erabili ahal izateko administrazio prozedura egokiak sortuko dituzte.

2

Beraz, **toki administrazioak konpromiso hauek hartzen ditu:**

- **Eskubide horiez baliatzeko prozedura berezi bat sortzeko konpromisoa.** Prozedura horren deskribapena **III. Eranskinen P1.1** dokumentuan ikus daiteke, eta prozeduraren eskema **P1.2** dokumentuan. Toki administrazio bakoitzak egokien ikusten duen bezala onartuko du prozedura hau.
- **Herritarren eskura jartzea datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko ereduak.** Eredu horiek Erregistro Orokorrean, Informazio Zerbitzuan edo Herritarren Harrerako Zerbitzuan, tratamendua egiten den beste edozein bulegotan eta toki administrazioaren web orrian egon beharko dute. Horretarako, **II. Eranskinen M2, M3, M4 eta M5** ereduak erabiliko dira. Ereduetan daude jasota eskubideak erabiltzeko aplikatzen den araudia eta eskubideak erabili, izapidetu eta erantzuteko baldintzak eta epeak.
- **Prestakuntza eta informazioa ematea** fitxategiko datuak atzitzeko aukera duten **langileei**, behar bezala atenditu ditzaten herritarrek.
- Erakundeetan jartzen dituzten aplikazio informatiko berrietan pixkanaka sartzea datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erraztasunez erabiltzeko moduko funtzionaltasunak, eta horrela interesdunek errazago atzemango dituzte haien eskubideez baliatzeko prozedurak.

3.4. HARREMANAK HIRUGARREN PERTSONEKIN EDO ENTITATEEKIN

23. artikulua. Datu pertsonalak atzitzea dakartzan zerbitzu prestazioak kontratatzea

23.1. Toki erakundearen fitxategiak atzitzea dakarren zerbitzu bat enkargatzea

- 1 Toki erakundeak datu pertsonalak atzitzeko bidea ematen badio hirugarren pertsona edo erakunde bati, datu horiekin tratamendu jakin bat egiteko administrazioaren enkarguz, ez da datu komunikaziotzat joko.
- 2 Zerbitzua emateak daukan kostua alde batera utzita, toki erakundeak datuen tratamendua arautu egin beharko du zerbitzu emailearekin, ahal bada idatzizko **kontratu** baten bidez, edo beste modu batez, beti ere kontratuaren edukia eta kontratua egin dela egiaztatzeko balio badu. Kontratuan nahitaez jaso beharko dira honako hauek:

• HELBURUA

- Zeintzuk datu edo datu kategoria ematen diren edo **zeintzuk datu atzitzeko bidea ematen zaion kontratatu den enpresari**.
- Datuak tratatzeko **fitxategia** zein den (fitxategiaren izena, fitxategia sortu zuen xedapen orokorra eta abar).
- Lana zein **jarduera motatarako** edo zein helburutarako egingo den.
- **Datuak nola tratatu behar diren** (ahalik eta zehaztasunik handienarekin).

Toki erakundeak datu pertsonalak ematen badizkio hirugarren pertsona edo erakunde bati datu horiekin tratamendu jakin bat egiteko, **kontratu bat formalizatu beharko du idatziz**

● ENPRESA EDO ENTITATE ZERBITZU-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK

- Enpresak beregain hartu beharko du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko **15/1999 Lege Organikoa** orokorrean xedatutakoa **betetzeko beharra**, bereziki 9. eta 10. artikuluetan xedatutakoa, bai eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak onartu zuen 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamenduan xedatutakoa ere. Era berean ageriko konpromisoa hartu beharko du bertako langileei arau horietatik datozen betebeharren gaineko **informazioa eta prestakuntza emateko**.
- Enpresak edo zerbitzu-hartzaileak datuak lagatzeko kontratuan jasotako **jardueretarako baino ezingo ditu erabili informazioa** eta datu pertsonalak.
- Informazioa tratatzeko lehendik jasota dauden jarraibideak edo gero jakinarazten direnak bete beharko ditu.
- Enpresak eta bertako langileek **lanbide-sekretua gorde** beharko dute kontratua indarrean dagoen bitartean atzitzen edo jakiten dituzten informazio, dokumentu eta gaien inguruan. Era berean, ezingo dituzte publiko egin edo besterendu kontratuaren ondorioz edo kontratua gauzatzean eskuratutako datuak, debekatuta dutelako, nahiz eta kontratuaren iraupen epea bukatuta egon.

Kontratututako enpresak debekatuta du kontratua gauzatzen ari den bitartean atzitutako informazioa hirugarren pertsonaei edo entitateei erreproduzitzea, jakinaraztea edo lagatzea

- Enpresak edo zerbitzu-hartzaileak, bere eskura jartzen diren datu pertsonalak babestuta daudela eta datu horiek ez direla aldatuko eta galduko, eta baimendu gabeko tratamendurik edo atzipenik ez dela egingo bermatzen dituzten **segurtasun neurriak bete beharko ditu** eta arlo teknikoan eta antolakuntza arloan hartu beharreko neurriak hartu beharko ditu, fitxategiaren segurtasun mailaren arabera. Horretarako, kontuan hartuko dituzte teknologiaren egoera, bildutako datuen ezaugarriak eta datu horiek dauzkaten arriskuak. Arriskuak gizakiaren jardueretatik edo ingurune fisiko eta naturaletik etor daitezke.

- **Segurtasun agiri formalizatua eta dokumentatua izatea**, eta bertan zehaztea, datuen izaera kontuan hartuta, inplementatu behar diren neurri teknikoak eta antolaketakoak. Hori horrela izan dadin, datu-lagatzea gertatu

- **ENPRESA EDO ENTITATE ZERBITZU-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK**

aurretik, adjudikaziodunak deskripzio memoria bat aurkeztu beharko du honakoak adieraziz: eskuartean dituen datuen eta dokumentazioaren konfidentzialtasuna eta osotasuna ziurtatzeko hartuko dituen neurriak eta datuen eta datu tratamenduen segurtasun arduraduna nor den enpresan, bai eta segurtasun arduradunaren lanbide profila ere.

- Kontratua gauzatzen ari den bitartean, enpresak edo zerbitzu-hartzaileak antzematen badu informazioaren segurtasun edo babes sistemak akatsak edo ihesak dauzkala, **berehala eman beharko dio horren berri** toki erakunde kontratatzaileari.
- Toki erakunde kontratatzaileari kontrol eta auditoria lanak erraztu beharko dizkiote, eskatutako informazioa emanez, eta, zehazten diren lokaletan sarbidea erraztuz, salbuespeneko egoeretan bada ere. Gainera, utzitako fitxategietan kontrol erregistroak erabiltzeko baimena eman beharko diote toki erakundeari.
- **Ezin izango dio hirugarren pertsona bati erreproduzitu, komunikatu edo laga**, kontratua gauzatzen ari diren bitartean eman zaion edo **jaso duen informazioa**.
- **Ezingo du jarduera**, osotasunean nahiz zati batean, **azpikontratatu, horretarako berariazko baimenik gabe**. Baimena baldin badago, idatziz jaso beharko dira enpresa adjudikaziodunak enpresa azpikontratatuari eman ahal dizkion datuak eta enpresa azpikontratatuak dauzkan betebeharrak guztiak. Enpresa adjudikaziodunak administrazio kontratatzailearekiko dauzkan betebeharrak berberak izango ditu gutxienez enpresa azpikontratatuak.
- Eskatutako zerbitzuak eman ostean, enpresak edo zerbitzu-hartzaileak datuak ezabatu beharko ditu, edo erabili dituen fitxategietatik etorritako datuak jasotzen dituen euskarri informatikoa itzuli beharko du, fitxategiaren kopiarik gorde gabe, ez eta segurtasun kopiarik ere, eta kanpoko pertsona fisiko edo juridiko batek datuen berri izan gabe. Era berean, euskarri magnetiko eta euskarri optiko guztiak edo bestelako euskarri prozesagarri guztiak itzuli edo suntsituko ditu.

**Eskatutako
zerbitzuak bukatu
ondoren,
kontratutako
enpresak nahitaez
ezabatu beharko ditu
datuak eta ezin
izango du datuen
kopiarik gorde**

● ENPRESA EDO ENTITATE ZERBITZU-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK

- Adjudikaziodunak ekipo informatikoak jarri baditu eta eginkizunak bukatu baditu, ekipo horiek jaso baino lehen, ezabatu egin beharko du erabilitako informazio guztia edo kontratua gauzatzetik eratorritako informazio guztia. Horretarako, informazioa berreskuratzen uzten ez duen sistemaren bat erabiliko da.
- Enpresak berak edo enpresak izendatutako pertsonak, datu tratamendua egitean, datuak beste erabilera baterako erabili baditu, komunikatu baditu edo kontratuko klausulak hausteko eran erabili baditu, tratamendu kontrolatzaileratzat joko da, eta egindako arau-hausteei pertsonalki erantzun beharko die.

3 Atal honetan jasotako preskripzioak bete egiten direla ziurtatzeko, **baldintza guzti horiek baldintza administratiboen agirietan edo baldintza teknikoen agirietan jasoko dira**, kontratazio administratiboetako prozeduretan parte hartzen duten pertsonak bere gain har ditzaten.

4 Baldintza hauek guztiak jasotzen dituen eredu bat dago **II. Eranskinean (M11)**.

23.2. Hirugarren pertsona edo entitate bati zerbitzu bat enkargatzearen, hirugarren horrek administrazioaren datu pertsonalak atzitu ahal izatea

1 Horrelakoetan ezinbestekoa izango da beheko klausulak jasotzea alde biek izenpetzen duten kontratu idatzian:

- Datu pertsonalak tratatzen diren lokaletan sartu ahal izatea.
- Datu pertsonalak atzitzeko aukera duten pertsonak gorde behar duten konfidentzialtasuna.
- Pertsona horiek beraiek bete beharreko segurtasun neurriak.

3.5. FITXATEGIEN SEGURTASUN NEURRIAK

24. artikulua. Fitxategi motak eta segurtasun mailak

1

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko Errege Dekretuak hiru segurtasun maila ezartzen ditu: goi-mailakoa, maila ertainekoa eta oinarritzkoa. Fitxategi edo tratamendu bati segurtasun maila bat ala beste bat ezarriko zaio fitxategiak dauzkan datu pertsonalen ezaugarrien arabera. 1720/2007 Errege Dekretuak honakoa xedatzen du:

Ideologiari, erlijioari, sinesmenei, arrazari, osasunari edo bizitza sexualari buruzko datuak edo polizia helburuetarako bildutako datuak dauzkaten fitxategiek eta genero indarkeriaren ondoriozko datuak dauzkaten fitxategiek, ukitutako pertsonen adostasun beharrik gabe, goi-mailako segurtasun neurriak izan beharko dituzte

- Datu pertsonalak dituzten fitxategi guzti-guztiak hartu beharko dituzte gutxienez oinarritzko segurtasun-mailako neurriak.
- Arau-hauste administratiboak edo penalak dituzten fitxategiek, Zerga Administrazioetako fitxategiek, finantza zerbitzuetako fitxategiek, ondare eta kreditu kaudimenari buruzko informazio zerbitzuak emateko erabiltzen diren fitxategiek, Gizarte Segurantzako Erakunde Kudeatzaileen eta Zerbitzu Orokorren fitxategiek, laneko istripuen mutualitateen fitxategiek eta nortasuna ebaluatzea ahalbideratzen duten fitxategiek oinarritzko segurtasun neurriez gain, maila ertaineko segurtasun neurriak ere izan beharko dituzte.

- Ideologiari, sindikatu afiliazioari, erlijioari, sinesmenei, arrazari, osasunari edo bizitza sexualari buruzko datuak edo polizia helburuetarako pertsonen adostasun beharrik gabe bildutako datuak dauzkaten fitxategiek, eta genero indarkeriaren ondoriozko fitxategiek, maila ertaineko segurtasun neurriez gain, goi-mailako segurtasun neurriak ere izan beharko dituzte.

- 2 Segurtasun maila bakoitzari buruzko azalpen koadro bat eta kasu bakoitzean ezarri beharreko neurriak daude **IV. Eranskineko D5** dokumentuan.

25. artikulua. Datu pertsonalak tratatzen dituzten pertsonen ginkizunak eta betebeharrak

- 1 Entitate baten zerbitzura lan egiten duten guztiek, normalean edo noizean behin datu pertsonalak tratatzen badituzte, datu pertsonalen babesaren arloko legedia edo araudi ezargarria bete beharko dute, eta horretarako, era arduratsuan bete beharko dute aipatutako arautegian eta Jardunbide Egokien Eskuliburu honetan ezarritako guztia.

- 2 **Langileen ardura dutenek** datu pertsonalen tratamenduaren eta babesaren inguruko eginbeharrei eta betebeharrei buruzko **prestakuntza egokia eman beharko diete langile horiei**, eta arreta berezia jarriko dute bertako ekipoetan estreinakoz sartzen diren pertsonen harrera faseko prestakuntzan.

Toki erakunde baten zerbitzuan ari diren pertsona guzti-guztiek bete beharko dute datuen babesaren arloko legedia

- 3 Toki erakundeek duten egitura kontuan hartuta, eta kontuan hartuta toki erakundeek, euren gain hatzen dutela haien eremuan datu pertsonalak modu eraginkorrean eta baliogarrian babesteko erantzukizun korporatiboa, honako figura hauek sortuko dira erakunde bakoitzean datu pertsonalen babeserako eragile potentzialak izateko:

a) Toki entitatearen lehendakariaren erantzukizuna izango da lege eta arau guzti-guztiak behar bezala betearaztea.

b) Tratamendu kontrolatzailea: toki erakundea izango da bere instalazioetan datu pertsonalak dauzkaten fitxategien azken erantzulea. Era berean, toki erakundeak hartu beharko ditu datu pertsonalen helburuari, edukiari eta tratamenduaren erabilerari buruzko erabakiak. Hala ere, fitxategien segurtasunarekin zerikusia duten zenbait lanetarako, toki erakunde bakoitzeko lehendakaritzak, eginkizun horiek eskuordetu nahi izanez gero, pertsona fisiko bat izendatu ahal izango du bertako langileen artetik fitxategi baten edo zenbait fitxategiren gaineko kontroleko lanak egiteko. Eskuordetzeak ez du esan nahi inondik inora administrazioa libratu egiten denik datu pertsonalen babesaren gainean duen erantzukizunetik.

c) Segurtasun arduraduna: administrazioan informazioaren segurtasunaren arloko estrategia orokorra zehazteko eta betearazteko ardura daukan pertsona da. Bereziki zaindu behar du segurtasuneko estrategia orokorrak bete egiten dituela datu pertsonalak babesteari buruzko legedian eta araudian ezarritakoa. Segurtasun arduradunaren eginkizuna da datuak babesteko aplikatu behar diren segurtasun neurriak koordinatzea eta kontrolatzea, tratamendu kontrolatzaileak eginkizun horiek eman dizkiolako. Eginkizun horiek gauzatzeko, bere administrazioan lege aholkularitzaren ardura duen pertsonaren laguntza eskatu ahal izango du, proposamenak edo egin beharreko jarduerak alde juridikotik egokiak diren ala ez argitzeko.

d) Datu pertsonalak babesteko batzordea: informazioaren segurtasunaren eta datu pertsonalak babestearen arloan erabakiak hartzeko laguntza eta aholkularitza organoa da. Toki erakunde bakoitzean horrelako bat eratu daiteke, egokien ikusten den moduan osatuta eta ondoen irizten zaion funtzionamendu erregimenarekin. Izan ere, kontuan hartu beharko dira toki entitate bakoitzaren ezaugarri funtzionalak, tamaina eta egitura organikoaren konplexutasuna.

e) Erabiltzailea: datuak edo baliabideak erabiltzeko baimena duen pertsona edo prozesua.

f) Tratamenduaren arduraduna (pertsona edo entitatea): bere aldetik edo beste batzuekin batera, administrazio interesdunaren kontura datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisiko nahiz juridikoa, agintari publiko, zerbitzu nahiz bestelako erakundea. Toki erakundeak laguntza teknikoa kontratatzeko aukera du informazioaren tratamendu zehatzak egiteko.

g) Datuak babestearen arloko laguntzailea edo koordinatzailea: Toki erakundeek izenda dezaketen pertsona, datuak babesteko kultura berria koordinatzeko, dinamizatzeko eta hedatzeko ardurarekin. Aurreko figuretako baten batekin bat etor daiteke ala ez.



1 Toki erakundeak nahitaez betebeharreko agiri baten bidez ezarriko du bertako segurtasun araudia. Agiri hori derrigorrean bete beharko dute datu pertsonalak eta informazio sistemak erabiltzen dituzten langileek.

2 Agiriak honakoak jaso beharko ditu gutxienez:

- Agiriaren ezarpen eremua eta babestutako baliabideak zehatz-mehatz zehaztuta.
- Jardunbide Egokien Eskuliburu honetan eta indarrean dagoen araudian eskatzen den segurtasun maila bermatzen dela ziurtatuko duten neurriak, arauak, prozedura, erregelak eta ereduak.
- Langileen eginkizunak eta betebeharrak.
- Datu pertsonalak dituzten fitxategien egitura eta horiek tratatzeko erabili behar diren informazio sistemen deskribapena.
- Jakinarazpen, kudeaketa eta erantzun prozedura, gorabeheraren bat dagoenerako.
- Babes kopiak egiteko eta datuak berreskuratzeko prozedurak.
- Segurtasun agirian jasotakoa bete egiten dela egiaztatzeko egin behar diren aldizkako kontrolak.
- Euskarri edo dokumentu bat leku batetik bestera eraman behar denean, baztertu behar denean edo berriz erabili behar denean hartuko diren neurriak.

**Udal guztiek
idatzi beharko
dute segurtasun
agiria**

- 3 **Segurtasun agiriak beti egon behar du eguneratuta**, eta informazio sisteman edo sistemaren antolakuntzan aldaketa aipagarriren bat dagoen bakoitzean berrikusi egin beharko da.
- 4 Segurtasun agiriaren edukiak bat etorri beharko du beti datuak babesteko segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenekin.
- 5 **IV. Eranskinean** segurtasun agiriaren adibide bat ematen da, administrazioek eredu moduan erabil dezaten.

27. artikulua. Datu pertsonalak atzitzeko bidea duten langileei euren betebeharrak jakinaraztea

- 1 Datu pertsonalak eta informazio sistemak atzitzeko bidea duten pertsonen eginkizunak eta betebeharrak ondo zehaztuta eta dokumentatuta egongo dira.
- 2 Tratamendu kontrolatzailearen ardura da neurri egokiak hartzea bertako langileek jakin ditzaten zeintzuk diren euren eginkizunei eragiten dieten segurtasun arauak eta arau horiek bete ezean, zeintzuk erantzukizunen pean eror daitezkeen.

28. artikulua. Identifikazio eta autentifikazio sistemak

- 1 Tratamendu kontrolatzailearen ardura izango da informazio sistema atzitzeko baimena duten pertsonen zerrenda eguneratu bat egotea, bai eta horretarako identifikazio eta autentifikazio prozedurak ezartzea ere.

Identifikazio eta autentifikazio prozesu bat ezarri beharko da baimenik gabeko atzipenik egon ez dadin

- 2 Autentifikazioaren mekanismoa pasahitzen bidez eratzen bada, pasahitzak esleitu, banatu eta bilduko dituen prozeduraren bat egon beharko da, horien konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko.
- 3 Segurtasun agirian adierazitako aldizkakotasunarekin aldatu beharko dira **pasahitzak**, eta indarrean dauden bitartean era ulertezinean gordeko dira.
- 4 Identifikazio argia eta pertsonalizatua egiteko aukera ematen duen mekanismo bat ezarriko da **informazio sistema atzitu nahi duen edozein erabiltzaile identifikatzeko** eta horretarako baimenik duen ala ez egiaztatzeko.
- 5 Erabiltzaileak beti pertsona fisikoak izango dira eta unibokotasunez identifikatuak, eta erabiltzaileei ez zaie baimenik emango kontuen bidez edo partekatutako identifikatiboen bidez atzipenak egiteko. **Erabiltzaile bakoitzak bere identifikatiboarekin egindako erabilera guztien ardura izango du.**
- 6 Informazio sisteman baimenik gabe behin eta berriz sartzen ahalegintzeko saioei muga jarriko zaie.

29. artikulua. Aplikazio informatikoetarako sarbide kontrola

- 1 Erabiltzaileek bakar-bakarrik izango dute baimena euren eginkizunetarako behar dituzten datu pertsonalak atzitzeko eta baliabideetan sartzeko. Neurriak hartuko dira erabiltzaile batek datuak atzitu ez ditzan edo baliabideetan sartu ez dadin, baimenak eskubiderik ematen ez badio.

- 2 Jarduera Egokien Eskuliburu honetako aurreko artikuluan aipatzen den erabiltzaileen zerrendan jasoko da erabiltzaile bakoitzari baimendutako atzipena. Segurtasun agirian jasota dauden **baimendutako pertsonak bakar-bakarrik eman, aldatu edo baliogabetu ahal izango dituzte baimendutako datu-atzitzeak eta baliabideetan sartzeak**, beti ere segurtasun agirian ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

Erabiltzaileek bakar-bakarrik izango dute baimena euren eginkizunetarako behar dituzten datu pertsonalak atzitzeko eta baliabideetan sartzeko

30. artikulua. Goi-mailako fitxategietako sarreraren erregistroa

- 1 Horrelako fitxategietara egindako sarrera bakoitzetik honakoak gordeko dira gutxienez: erabiltzailearen identifikazioa, sartu den eguna eta ordua, zein fitxategitan sartu den, atzipen mota eta baimendua ala ukatua izan den.
- 2 Atzipena baimendutakoa izan bada, **beharrezkoa izango da atzitutako erregistroa identifikatzeko besteko informazioa gordetzea.**
- 3 Aurreko paragrafoetan zehaztutako datuen erregistroa bideratzeko mekanismoak zuzenean kontrolpean izango ditu beti horretan eskumena duen segurtasun-arduradunak, eta ezin izango da inola ere utzi mekanismo horiek indargabetzen edo manipulatzeko.
- 4 Erregistroan jasotako datuak gordetzeko epea, gutxienez, bi urtekoa izango da.
- 5 Horretarako eskumena duen segurtasun-arduradunak **aldian-aldian aztertu beharko du erregistroan jasotako kontrol-informazioa**, eta txostena egingo du azterketa horietaz eta antzemandako arazoez, gutxienez, hilean behin.

31. artikulua. Informazioa duten ekipook kokatuta dauden egoitzetan sartzea

1

Segurtasun agiriaren arabera baimena duten langileak bakarrik sartu ahal izango dira datu pertsonalak jasota dituzten informazio-sistemak kokatuta dauden egoitzetan.

2

Goi-mailako informazio sistemak kokatuta dauden lokalek sarbide kontroleko sistema bat izan beharko dute, baimendutako pertsoneri bakarrik sartzen uzteko. Sarbide kontroleko sistemak **erregistro bat izan beharko du egon diren sarrerekin eta sartu diren pertsonekin.**

32. artikulua. Datuak saretik atzitzea

Informatika bidezko datu transmisioak egiteko, nahitaezkoa izango da datuok enkriptatzea

Telekomunikazio-sareen bitartez datu pertsonalak transmititu behar direnean, datu horiek enkriptatu egin beharko dira, edo, bestela, beste edozein mekanismo erabili beharko da, informazio hori beste inork ulertzeko modurik egon ez dadin.

33. artikulua. Lan erregimena lan estazioetan edo eramangarrietan

Izaera pertsonaleko datuak toki administrazioaren sistema informatikoetatik kanpo tratatu behar badira, hau da, toki administrazioaren jabetzakoak diren edo jabetza pribatukoak diren lan estazioetan edo ekipo eramangarrietan tratatu behar badira, tratamenduaren kontrolatzaileak horretarako baimena eman beharko du berariaz, eta, nolana den ere, dena delako fitxategi motari dagokion segurtasun maila eta enkriptatzea bermatu beharko dira.

- 1 Datu pertsonalak dituzten euskarri informatikoei baimendutako atzipena duten erabiltzaileei bakarrik emango diete bertan dagoen informazio mota identifikatzeko aukera, inbentagarriak izan beharko dira eta segurtasun agiriaren arabera baimena duten langileentzako sarbide murriztua duen leku batean biltegitratuko dira, etiketatuak izan daitetzen.

**Ekipo
eramangarrietan
edo bestelako
euskarrietan
datuak ateratzeko
baimena beharko
da**

- 2 35.4 artikuluan ezarritakoa alde batera utzita, datu pertsonalak dituzten euskarri informatikoei fitxategia kokatuta dagoen lokaletatik kanpora atera ahal izateko, tratamendu kontrolatzaileak eman beharko du baimena eta ez beste inork.

- 3 **Euskarri informatikoen sarrera-erregistroa** osatzeko sistema bat ezarri beharko da, zuzenean zein zeharka honako hauen berri izateko: euskarri mota, eguna eta ordua, igorlea, euskarri kopurua, bertan jasotako informazio mota, bidalketa mota eta euskarria jasotzeko ardura duen pertsona, behar bezala baimenduta egon beharko dena.

- 4 **Euskarri informatikoen irteera erregistroa** osatzeko sistema bat ezarri beharko da, zuzenean zein zeharka, honako hauen berri izateko: euskarri mota, eguna eta ordua, hartzailea, euskarri kopurua, bertan jasotako informazio mota, bidalketa mota eta euskarria emateko ardura duen pertsona, behar bezala baimenduta egon beharko dena.

- 5 **Euskarri bat baztertu edo berriz erabili behar bada**, inbentariotik behin betiko bajan eman aurretik, hartu beharreko neurri guztiak hartuko dira, euskarri horretan jasotako informazioa geroago inork berreskuratzea erabat ezinezkoa izan dadin.

- 6 Mantentze-lanak, zaintza lanak edo laneko beharrak direla-eta, fitxategiak kokatuta dauden lokaletatik kanpora atera behar badira euskarriak, hartu beharreko neurri guztiak hartuko dira, euskarri horietan jasotako informazioa geroago inork bidegabe erabiltzea erabat ezinezkoa izan dadin.

35. artikulua. Babes kopiak eta datuak berreskuratzea

- 1 Tratamendu kontrolatzailearen eginkizuna izango da, edo eskuordetzagatik, segurtasun arduradunarena, babes kopiak eta datu-berreskuratzeak egiteko prozedurak behar bezala zehaztu eta aplikatzen direla egiaztatzea.
- 2 Babes kopiak eta datu-berreskuratzeak egiteko prozedurek bermatu beharko dute datuak galdu edo suntsitzen direnean zeuden bezala, egoera berean, berregingo direla.
- 3 Goi-mailako fitxategien babes kopiak astean behin egin beharko dira gutxienez. Epe horretan ez bada daturik eguneratu, ez da beharrezkoa izango babes kopiarik egitea.
- 4 Babes kopia bat eta datuak berreskuratzeko prozeduren beste kopia bat gorde beharko dira, baina ez datuak tratatzen dituzten ekipo informatikoak dauden toki berean, beste toki batean baizik. Era berean, Jardunbide Egokien Eskuliburu honetan eskatzen diren segurtasun neurriak bete beharko dira.

Babes kopia bat egin beharko da eta ez da gordeko datu pertsonalak tratatzen dituzten ekipo informatikoak dauden leku berean, beste batean baizik

36. artikulua. Aldi baterako fitxategiak, dokumentuen lanerako kopiak eta probak benetako datuekin

- 1 Aldi betarako lanak edo laguntzako lanak egiteko bakar-bakarrik egiten diren aldi baterako fitxategiek edo dokumentuen kopiek bertan jasotzen duten informazioari dagokion segurtasun maila izan beharko dute, edo fitxategiek edo kopiek dituzten helburuen arabera segurtasun maila, beti ere informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko dagoen premia kontuan hartuta.

Aldi baterako fitxategiak edo laneko kopiak ezabatu egingo dira beharrezkoak ez badira

- 2 Horrela sortzen diren aldi baterako fitxategiak eta laneko kopiak ezabatu egin beharko dira horiek sortu zirenean zeuden helburuak desagertzen direnean.
- 3 Datu pertsonalen fitxategiak tratatzen dituzten informazio sistemak jarri edo aldatu aurretik egin beharreko probak ezin izango dira egin benetako datuekin, tratatutako fitxategiari dagokion segurtasun maila ziurtatuta ez badago behintzat.

37. artikulua. Segurtasun gorabeheren erregistroa

- 1 Segurtasun gorabeherak jakinarazteko eta kudeatzeko prozedurak erregistro bat eduki beharko du nahitaez, eta bertan honakoak jaso beharko dira: gorabehera mota, noiz gertatu den, jakinarazpena nork egin duen, nori jakinarazten zaion eta gorabeherak izan dituen ondorioak.
- 2 Horiez gain, honakoak ere jaso beharko dira erregistroan: datuak berreskuratzeke erabili diren prozedurak, prozesua nork gauzatu duen, berreskuratutako datuak, eta, horrelakorik gertatzen bada, berreskuratze prozesuan eskuz grabatu behar izan diren datuak ere bai.
- 3 **Tratamendu kontrolatzailearen baimen idatzia** beharko da **datuak berreskuratzeke prozedurak gauzatzeko.**



38. artikulua. Datuen zirkuitua paper-euskarrian eta kopiak suntsitzea

- 1 Kudeaketa lanak egiteko **ezinbestekoa bada paperean inprimatutako zerrendak edo kopiak erabiltzea**, eta zerrenda edo kopia horiek datu pertsonalak badauzkate, sistema bereziren bat ezarri beharko da hor jasotako edukia baimena daukaten pertsonak baino atzitu ez dezaten eta **ezinezkoa izan dadin baimenik gabeko pertsonak atzitzea**.
- 2 Paperean jasotako informazioa administrazioaren lokaletatik atera beharra badago, neurriak hartuko dira informazio hori bidegabe erabil ez dezaten.
- 3 Paperean inprimatutako zerrendak edo kopiak suntsitzeko neurriak hartuko dira beharrezkoak ez diren unean.

39. artikulua. Auditoriak

- 1 Datuak tratatzeko informazio eta instalazio sistemekin **barneko edo kanpoko auditoria bat egin beharko da bi urtean behin**, Jardunbide Egokien Eskuliburu honetan jasotakoa eta datuen segurtasunaren arloan indarrean dauden prozedura eta jarraibideak betetzen direla egiaztatzeko.
- 2 Auditoriaren txostenak segurtasun neurrien eta kontrolen gaineko irizpena eman beharko du, hau da, jaso behar du ea behar bezala betetzen dituzten Jardunbide Egokien Eskuliburu honetan jasotakoa eta datuen segurtasunaren arloan indarrean dagoen araudia; akatsak identifikatu beharko ditu eta behar diren neurri zuzentzaileak edo osagarriak proposatu beharko ditu. Era berean, auditorian jaso egin beharko dira bertan egiten diren irizpenen eta proposamenen oinarrian dauden datuak, gertaerak eta oharrak.



- 3 Segurtasun arduradunak aztertu beharko ditu auditoria txostenak, eta azterketatik ateratzen dituen ondorioak tratamendu kontrolatzaile guztiei jakinarazteko ardura izango du, hartu beharreko neurri zuzentzaileak har daitezen. Egiten diren auditoria txosten guztiak DBEBren eskura jarriko dira.

Segurtasun neurrien gaineko auditoriak egin beharko dira, akatsak eta neurri zuzentzaileak atzemateko

40. artikulua. Automatizatu gabeko fitxategiekin nola jokatu

40.1. Nola jokatu oinarrizko mailadun fitxategi automatizatu gabeekin

- 1 Datu pertsonalak dauzkaten dokumentuak biltegitratzeko gailuetan **trabak jarriko dira, irekitzea ezinezkoa izateko**. Horrez gain, barruan daukaten informazio mota identifikatu beharko da, inbentariatu egingo dira eta segurtasun agirian baimendutako langileek kontrolatzen dituzten tokietan biltegitratuko dira.
- 2 Tratamendu kontrolatzaileak ezarri beharko ditu **automatizatu gabeko fitxategiak artxibatzeke bete beharko diren prozedurak**. Prozedura horiek honako helburua izango dute: dokumentuak behar bezala gordetzen direla ziurtatzea, informazioa lokalizatu eta kontsultatu ahal izatea eta datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea erabiltzeko aukerak ematea.
- 3 Informazioa berraztertzen edo tratatzen ari badira eta **informazioa ez badago artxiboan**, informazioaren ardura duen pertsonak **zaindu** egin beharko du eta ez die informazioa atzitzen utziko baimenik ez duten pertsonen.

40.2. Nola jokatu maila ertaineko fitxategi automatizatu gabeekin

- 1 Fitxategi hauek ere segurtasun arduraduna izan beharko dute. Segurtasun arduradunak fitxategi automatizatuen kasuan dituen erantzukizun eta eginkizun berberak izango ditu.
 - 2 Fitxategi hauekin kanpoko edo barneko auditoria bat egin beharko da gutxienez bi urtean behin.
-

40.3. Nola jokatu goi-mailako fitxategi automatizatu gabeekin

- 1 Segurtasun agirian baimendutako langileek baino ezingo dute dokumentazioa atzitu. Asko badira, atzipenak identifikatzeko bitartekoak ezarri beharko dira.
- 2 Fitxategia kokatuta dagoen lokalak **ateak izango ditu giltzarekin edo antzeko beste tresnaren batekin**, eta itxita egon beharko dute ez bada dokumenturik atzitzeko premiarik. Hori egitea ezinezkoa bada, segurtasun arduradunak txosten bat egin beharko du azaltzeko zergatik ezin den eta beste aukera batzuk proposatzeko. Edozelan ere, armairuek, artxiboek eta bestelako biltegiatze-tresnek trabak izango dituzte, baimenik gabeko atzipenik egon ez dadin.
- 3 Baimendutako langileek bakarrik egin ahal izango dituzte dokumentuen kopiak. Kopiak berreskuratzea ezinezkoa egiten duten prozedurak erabili beharko dira kopiak suntsitzeko.
- 4 **Fitxategi hauetako dokumentazioa** leku batetik bestera eramatean, segurtasun neurriak hartu beharko dira baimenik ez duten pertsonen informazioa **atzitu edo erabili ez dezaten**.

3.6. DATU PERTSONALAK LAGATZEA EDO KOMUNIKATZEA

41. artikulua. Lanbide sekretua gorde beharra

- 1 Datu pertsonalen tratamenduko edozein fasetan parte hartzen duen edonork bete beharko du datu horien gaineko lanbide sekretua eta horiek gordetzeko eginkizuna, eta betebeharrak bi horiek iraun egingo dute, nahiz eta toki erakundearen zerbitzurako harremana bukatuta egon.
- 2 **Sekretua gorde beharra bete ezean, zehazpena ezarriko da** indarrean dagoen legedian xedatutakoa kontuan hartuta, eta, hala badagokio, zehapenak erantzukizun penalak, diziplinazkoak eta hirugarrenen aurreko erantzukizunak ekarriko ditu.
- 3 **II. Eranskinean (M13)** gutun eredu bat ematen da toki administrazioek bertako langileei bidali ahal izango dietena, lanbide sekretua gorde behar dutela gogorarazteko eta, gorde ezean, zeintzuk ondorio jasan ditzaketan azaltzeko.

Erakundearen
zerbitzuan ari diren
persona guztiek gorde
beharrak dituzten datu
pertsonalen gaineko
lanbide sekretua



42. artikulua. Datuen komunikazioetan bete beharrekoak

1 Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen **eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea**, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren **aldez aurreko adostasuna beharko da**.

2 Aurreko paragrafoan aipatutako **adostasuna ez da beharrezkoa** izango **honelako kasuetan**:

- **Lege batek baimentzen badu lagapena.**
- **Jendearen eskurako iturrietatik** hartutako datuak badira.
- **Harreman juridiko bat askatasunez eta modu legitimoan onartzearen ondorioz egiten den datu-tratamendu bat bada**, eta harreman juridiko hori garatzeko, betetzeko eta kontrolatzeko ezinbestekoa bada datu-tratamendua hirugarrenen fitxategiekin konektatzea. Kasu honetan komunikazioa legitimoa izateko, komunikazioaren oinarrian dagoen helbururako baino ezingo da egin konexioa.
- Komunikazioaren hartzailea **Herriaren Defendatzailea, Aratekoa, Fiskaltza edo epaileak edo Epaitegiak edo Herri-Kontuen Epaitegia** badira, eta esleituta dauzkaten eginkizunetarako behar badituzte.

Interesdunaren aldez aurreko adostasuna beharko da hirugarren pertsona edo entitateei datuak laga ahal izateko, legean aurreikusitako kasuetan izan ezik

- Lagapena administrazio publikoen artean egiten bada eta lagatzearen **helburua bada** gero datu horiek **xede historiko, estatistiko edo zientifikoarekin tratatzea; datuak Administrazio Publiko batek beste batentzat bildu edo landu baditu edo lagapena egiten bada gai berari buruzko eskumenez baliatu ahal izateko.**
- **Osasunari buruzko datu pertsonalak** lagatzea ezinbestekoa bada fitxategi batera sartzea eskatzen duen larrialdi bat konpontzeko edo **ikerketa epidemiologikoak egiteko**, beti ere estatuko edo autonomia erkidegoko legediak ezarritakoa kontuan hartuta.

3 Datu pertsonalak hirugarren bati komunikatzeko **adostasuna baliogabea izango da**, baldin eta interesdunari ematen zaion informazioan ez bazaio argi uzten zein den berak baimendutako komunikazioaren ondorioz egingo den erabileraren helburua edo ez bazaio argi uzten datuak komunikatu nahi zaizkion subjektuak zein jarduera mota egiten duen.

4 Datu pertsonalak komunikatzeko ematen den **baimena ezeztatu ere egin ahal da.**

5 Datu pertsonalak komunikatu zaizkion pertsonak, komunikazioaren hartzaillea izateagatik, ezinbestean bete beharko ditu DBLOan jasotako xedapenak.

6 Komunikazioa egin aurretik disoziazio-prozeduraren bat egin bada, ez da aplikatuko aurreko paragrafoetan ezarritakoa.

7 **II. Eranskinean (M14)** datuak lagatzeko eredu bat dago eskuragarri eta **III. Eranskinean (P2)** datuak lagatzeko eskabideekin erabili beharreko prozeduraren eskema dago.



43. artikulua. Interesdunaren adostasuna behar duten datu lagatzeetarako prozedurak

1

Interesdunaren adostasuna behar duten lagapenak badira, eta lagapenak zuzenbide pribatuko nahiz zuzenbide publikoko erakundeei egin beharrekoak badira, honela jokatu da:

- **Entitate eskatzaileek tratamendu kontrolatzaileari egin beharko diote eskaera**, eta tratamendu kontrolatzaileak baloratuko du lagapena egokia eta legezkoa den. Gainera, tratamendu kontrolatzaileak lege aholkularitza ere eskatu ahal izango dio bere erakundean eginkizun hori duenari.

Tratamendu kontrolatzaileak egiaztatu beharko du interesdunek adierazitako adostasuna

- Tratamendu kontrolatzaileak **baldintzen gutuna** bidaliko dio erakunde eskatzaileari “jaso dut eta ados nago” formularen bidez izenpetu dezan.
- Tratamendu kontrolatzaileak egiaztatu egin beharko ditu interesdunek emandako baimenak, eta beharrezkoa bada, berariaz eskatu beharko die adostasuna. Horrez gain, helburu horretarako sortutako fitxa pertsonalak markatzeko sistema bat burutu beharko du uneoro egin diren lagapen guztiak jasoz, eta, horrela bermatuz, interesdunek benetan erabil dezaketela datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea.
- Tratamendu kontrolatzaileak aldeztu aurretik erabakitako euskarrian komunikatuko dizkio datuak lagapen-hartzaileari. Lagapenak fitxategiaren segurtasun agiriaren sarrera eta irteera erregistroan jaso beharko dira.

2

II. Eranskinean (M15) daude eskuragarri datuen lagapen-hartzaileek bete behar dituzten baldintzak, baldin eta lagapena egiteko, interesdunaren adostasuna beharrezkoa bada. Aurrerantzean dokumentu horren izena honako izango da: lagapen-hartzaileak onartu beharreko Baldintzen Gutuna.

44. artikulua. Interesdunaren adostasuna behar ez duten datu lagatzeetan bete beharreko prozedurak

1

Interesdunaren onespena behar ez duten datu-lagatzeak badira (42.2 artikuluan xedatutakoarekin bat), tratamendu kontrolatzaileak gainbegiratu beharko ditu datu-lagatze horiek. Horrelako datu-lagatzeak dira ondoko hauek:

- **Lege erakundeei eta administrazio erakundeei egindako datu-lagatzeak.** Beti ere, legea betez, erakunde horiek dituzten eskumenak kontuan hartuta eta aipatutako araudian jasotako egoera eta baldintzak kontuan hartuta egiten badira.
- **Sindikatu ordezkariak dutenei** lagatzea toki erakundeko langileen datu pertsonalak, honako lege hauek xedatutakoa betetzeko: Askatasun sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 legea eta langileen ordezkariak kontratazio arloari buruz nahiz une bakoitzean indarrean dagoen legediaren arloari buruz informatuta egoteko duten eskubideari buruzko urtarrilaren 7ko 2/1991 Legea.
- **Osasunari buruzko datu pertsonalak lagatzea ezinbestekoa bada fitxategi automatizatu batera sartzea eskatzen duen larrialdi bat konpontzeko** edo ikerketa epidemiologikoak egiteko, beti ere honakoen arabera: Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorra eta xedapen osagarriak, Laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea edo momentu bakoitzean indarrean dagoen bestelako araudia.
- Datu-lagatzea disoziazio prozedura baten ondoren egiten bada, hau da, **baldin eta lortzen den informazioa ezin bada lotu pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri batekin.**

2

Hori guzti hori horrela bada ere, zerbitzuak ematean egiten diren datu-lagatzeak, BDLOren 12. artikuluan xedatzen denaren arabera, bereziak direnez, Eskuliburu honetako 22. artikuluan aurreikusitako prozedura bete beharko dute.

45. artikulua. Udal erroldako datuak erabiltzea eta tratatzea

45.1. Udal erroldaren xedea

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak xedatzen du zehatz-mehatz udal erroldako datuak zein helbururekin erabil daitezkeen. Hona hemen erabilerak:

- Udalerriko biztanleria zehaztea (TAOL 15).
- Udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga izatea (TAOL 16.1).
- Estatistikak egitea (TAOL 16.3) familien osaerari, ezaugarri ekonomikoei, hezkuntza mailari, ugalkortasunari eta heriotzei buruz.

45.2. Beste administrazio batzuei datuak lagatzea aldez aurreko adostasunik gabe, legezko lagatzeak direlako

Udal erroldako datuak aldez aurreko adostasunik gabe laga ahal izango zaizkie beste administrazioei, haien eginkizunak gauzatu ditzaten, baldin eta egoitza edo helbidearen datua eginkizun horietarako garrantzitsua bada

Udal erroldako datuak interesdunaren aldez aurreko baimenik gabe beste administrazio batzuei lagatzeko, halakorik eskatzen badute, ezinbesteko baldintza izango da administrazio biek nahitaez behar izatea datu horiek, bakoitzak bere eginkizunetarako, eta bakar-bakarrik eman ahal izango dira egoitza edo helbideari buruzko datuak garrantzizkoak diren gaietarako.

Zentzu honetan, administrazio eskatzaileak justifikatu egin beharko du datuak dituen toki erakundearen aurrean zein eginkizunetarako nahi dituen datu pertsonal horiek, eta horretaz gain, ordenamendu juridikoak aitortzen dizkion eskumenetan kokatu beharko ditu eginkizunok, eskabidean eskumena zehatz-mehatz adieraziz. Eskabidea egiaztatu eta justifikatu ondoren, informazioa atzitu ahal izango da eta administrazio publiko eskatzaileari, esleitura daukan eskumen legitimoa bate ahal izateko behar dituen datuak emango zaizkio **udal erroldatik, hau da, datu egokiak, bereizleak eta neurrikoak lagako zaizkio.**

45.3. Ukituaren adostasunik gabe egin daitezkeen udal erroldaren beste datu lagatze batzuk

1 Ondorio honetarako indarrean dagoen legediak berariaz xedatzen duenez, **ondoko erakundeek eskatuz gero, udal erroldako datuak laga egin beharko zaizkie nahitaez:**

- **Segurtasun eta Indar Kidegoei, polizia helburuetarako,** lagatzearen helburua segurtasun publikorako benetako arrisku bati aurrea hartzea bada edo arau-hauste penalak zigortzeko bada.
- **Zerga administrazioari.**
- Herriaren defendatzaileari, Arartekoari, Fiskaltzari, epaileei, auzitegiei eta Herri-Kontuen Epaitegiari.

2 **Datu horiek sekretu estatistikopean dauden estatistika ofizialak egiteko ere laga ahal izango dira,** beti ere Funtzio estatistiko publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean xedatutakoa kontuan hartuta.

3 Kasu horietatik aparte, udal erroldako datuak konfidentzialak dira, eta horiek atzitu ahal izateko, honako lege hauetan ezarritakoa bete beharko da: Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

- 1 Nahiz eta DBLOak eta 2/2004 Legeak aipatu ere ez duten egiten toki erakunde bereko organoen arteko datu-lagatzea egon daitekeenik, horrek ez du esan nahi debekatu egiten dutenik, kontrakoa baizik, hau da, ulertu behar da toki erakunde bereko organoen arteko datu-lagatzea egiteko, bi erakunde desberdinen arteko datu-lagatzeak egiten direnean bete beharreko betekizunak bete beharko direla.
- 2 Ondorioz, udal erroldako datu-lagatzeak toki erakundearen beraren eskumen bat erabiltzeko bada, eta helbideari buruzko datua garrantzitsua bada, ez da arazorik egongo datuak komunikatzeko interesdunaren adostasunik gabe. Horrelako egoerak gertatzen badira, helburuen arteko bateragarritasuna dagoela ulertuko da.
- 3 **Ez da gauza bera gertatuko datu-lagatzeak udal erroldakoak izan beharrean beste fitxategi batzuetakoak badira.** Beraz, ez da onartuko fitxategi bateko datuak partekatzea administrazio-espeditente bat izapidetzeko, baldin eta fitxategi horretan datu pertsonalak badaude jasota. Eta toki erakunde bereko beste organo batek erabiltzea ere ez da onartuko, nahiz eta toki erakundearen beraren eskumen baterako izan, eginkizun hori ukitutako fitxategiaren helburuetan berariaz jasota ez badago behintzat.

Toki erakunde bereko sailen edo zerbitzuen artean Udal erroldako datuak laga ahal izango dira, baldin eta helbidearen datua beharrezkoa bada gauzatu beharreko eginkizunerako



DATU
PERTSONALAK
BABESTEKO
ESKUBIDEA
BESTE
ESKUBIDE
BATZUEKIN
BATERA

4.1. DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEA ETA INFORMAZIOA ATZITZEKO ESKUBIDEA

46. artikulua. Informazioa atzitzeko eskubidea

1 Eskubide hori jasota dago izaera orokorrarekin honako legeetan: Konstituzioaren 105 b) artikuluan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 35 a), b), g) eta h) artikuluetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean eta Toki Erakundeen Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan.

Pertsona guztiek dute, pertsona izateagatik, toki erakundeetan dagoen informazioa atzitzeko eskubidea


2 Pertsona guztiek dute toki erakundearengandik informazioa jasotzeko eskubidea, herritarrek izateagatik.

3 Pertsona guztiek dute toki erakundearen fitxategietan eta erregistroetan gordetako dokumentazioan jasota dagoen informazioa jasotzeko eskubidea. Informazioa era askotakoa izan daiteke: a) toki erakundearen organismoak eta administrazio unitateak identifikatzeko behar den informazioa edo horien helburu, eskumen, egitura, funtzionamendu eta kokapenari buruzkoa; b) dena delako pertsonak egin nahi dituen proiektu, jarduera edo eskabideei, indarrean dauden xedapenak kontuan hartuta, aplikatu behar zaizkien betekizunei edo betekizun teknikoei buruzko informazioa; c) prozedurak izapidetzeari eta zerbitzu publikoei nahiz prestazioei buruzko informazioa; d) era berean, interesdunek eskubidea dute toki administrazioarekin dauzkaten harremanetarako behar dituzten datuak guztien gaineko informazioa izateko.

47. artikulua. Informazioa atzitzeko eskubideaz baliatzea

- 1 Toki erakundearen artxiobotan eta erregistroetan gordetako dokumentazio administratiboa eta informazioa atzitzeko eskubideak honako mugak dauzka: batetik, estatuaren segurtasunaren eta defentsaren, delituen ikerketaren eta pertsonen bizitza pribatuaren arloan Konstituzioaren 105. artikulua jartzen dituen mugak; bestetik, edozein eskubide erabiltzeko bete behar den proportzionaltasunaren, arrazionaltasunaren eta fede onaren printzipioek jartzen dituztenak, eta, azkenik, 30/1992 Legearen 37.5 artikuluan eta 37.6 artikuluan ezarritakoak (azken horiek xedapen berezien bidez arautzen dira).
- 2 Atzipen eskubidearen helburua da toki erakundeetako artxiobotan eta erregistroetan jasota dagoen edozein material, edozein dela ere agirion adierazpidea –idatzia, entzunezkoa nahiz irudizkoa– eta euskarri materiala.
- 3 Herritarrek ezin dute murriztu zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eraginkortasuna, artxiobotara eta erregistroetara irispidea izateko eskubideaz baliatzerakoan. **Herritarrek, hortaz, aztertu nahi dituzten agiriak banaka zehaztu behar dituzte eskaeran;** hau da, ezin dute gai edo gai-multzo baterako eskabide orokorrik egin, eta, eginez gero, aukerakoa izango da kontuan hartzea. Hala ere, eskatzaileak ikertzaile profesionalak badira eta historian, zientzian edo kulturen interes handia dutela egiaztatzen badute, espedienteak zuzenean aztertzeko baimena eman dakieke, beti ere, pertsonen bizitza pribatua behar bezala bermatuta.

Eskabide bat egin beharko da eta bertan zehatu zeintzuk agiri eskuratu nahi diren



47.1. Izapidetzen ari diren espedienteetako dokumentazioa atzitzea

Ukitutako **prozeduretako interesdunek edo parte hartzaileek izango dute bakar-bakarrik izapidetzen ari diren espedienteetan dauden dokumentuak atzitzeko aukera**. Horrela, administrazioaren jardueraren eraginkortasuna babestu nahi da.

47.2. Bukatutako espedienteetako dokumentazioa atzitzeko eskubidea

- 1 Edonork dauka bukatutako espedienteetako dokumentuen kopia jasotzeko eskubidea.
- 2 Hala ere, dena delako lizentzia eskatzeko aurkeztu ziren **proiektu teknikoak** eta horien gaineko dokumentuak **atzitzea eskatzen bada**, horiek babestu ala ez aztertu beharko da, jabetza intelektualaren eskubidea bermatu ahal izateko.
- 3 Bukatutako espedienteetako dokumentazio administratiboa atzitzeko aukera egon dagoen arren, badago muga bat, eta da pertsonen intimitatea errespetatzea.
- 4 Datu pertsonalak dauzkan informazioa ematen denean ahalegina egingo da informazioa **era disoziatuan aurkezteko**. Eta hori egitea ezinezkoa bada, eman beharreko dokumentazioan dauden datu pertsonalak irakurtezinak direla ziurtatu beharko da, datu pertsonalak ezabatuz edo zirriborratuz.

**Bukatutako
espedienteetako
dokumentazio
administratiboa
atzitzeko aukera egon
dagoen arren, badago
muga bat, eta da
pertsonen intimitatea
errespetatzea**

- 5 Norbaitek bukatutako espediente bat eskatzen badu, eta espedienteak datu pertsonalak badauzka, disoziazioa edo antzeko beste sistema bat erabili beharko da, eta interesdunei baino ez zaie emango haien intimitateari buruzko datuak dauzkan dokumentazioa.
- 6 Zehapen eta diziiplina espedienteekin zerikusia duten datu izendunak interesdunei baino ez zaizkie emango. Berdin jokatu da legean jasotako bestelako kasuetan.
- 7 Datu izendunak badira, ez badira intimoak eta zehapen eta diziiplina espedienteekin zerikusirik ez badute, titularrei emateaz gain interes legitimoa eta zuzena egiaztatzen duten hirugarren pertsonen edo entitateen ere emango zaizkie.

47.3. Informazioa atzitzeko eskubidea ukatzea

Edozelan ere, atzipen eskubideaz baliatzea ukatu egin ahal izango da **interes publikoak hala agintzen duenean, hirugarren pertsonen interes babesgarriagoak daudenean**, edota legeren batean horrela ezartzen denean. Atzipena ukatzeko balorazioa toki erakundean eginkizun hori duen organoak egin beharko du, ez beste batek, eta aurreko baldintzak aztertuta egingo du. Atzipen eskubideaz baliatzea ukatzen bada, **ebazpen arrazoitua** eman beharko da.

48. artikulua. Atzipen eskubideaz baliatzea bitarteko elektronikoen bidez

- 1 Gardentasunaren printzipioaren agerpenik garrantzitsuena da atzipen administratiborako eskubidea; izan ere, bere helburua da herritarrek ahalik eta informazio zabalena eta hoberena izatea toki erakundeek egiten dituzten jardueren gainean. Beraz, toki administrazioak behar diren bitarteko guztiak jarri beharko ditu, informazio eta komunikazio teknologiak erabiliz, eginkizun hauek erraztuz: herritarren parte hartzea eta herritarrekiko komunikazioa, dokumentuen aurkezpena, administrazio izapideak, espedienteen kontsultak, inkestak eta, hala badagokio, herritarrei egin beharreko kontsultak.

- 2 Toki erakundeak atzipen zerbitzua bitarteko elektronikoez ematen badu, bere gain hartuko du pertsonak, enpresek, administrazioek, erakundeek, organismoek edo entitateek ahalik eta informazio gehien atzitzeko aukeraren ardura, beti ere informazioaren alderdi orokorreari dagokienez.

Toki erakundeak aukera ematen badu informazioa bitarteko elektronikoz eskuratzeko, modu egokian egiaztatu beharko du eskubidearen titularra den pertsonaren identitatea

- 3 Toki erakundeak neurriak hartuko ditu eskubidearen titularrek bakarrik izan dezaten informazioaren berri. Horretarako, sinadura elektronikoa bezalako sistemak edo titularraren identitatea behar bezala egiaztatzeko balio duten bestelako sistemak erabiliko dira.

- 4 Era berean, **bitarteko elektronikoen bidez egiten diren jakinarazpenak** ere ziurtatu beharko dira, baina komunikazio sistema seguru bat erabilita, **konfidentzialtasuna bermatu** dadin eta ez ditzaten komunikazioak atzeman eta hondatu eta ez dadin baimenik gabeko atzipenik gertatu. Horretarako, **komunikazioaren hartzaillearen identitatea** bermatzen duten **autentifikazio mekanismoak** erabiliko dira.

- 5 Toki erakundeak **ediktu-taula birtualetan** edo web guneko beste atalen batean argitaratu ahal izango ditu administrazio egintzak, baldin eta ezinezkoa izan bada horien jakinarazpenak modu pertsonalean egitea interesdunei, hala xedatzen baitu 30/1992 Legearen 59.5 artikulua.

- 6 **II. Eranskinean (M16)** web orrialdeko datuen babesaren arloko legezko oharren edukiaren eredu bat dago.

4.2. DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEA ETA ARGITALPENEA

49. artikulua. Administrazio egintzen argitalpena eta hedapena

1 Interesdunei edo publikoari edozein bitartekoren bidez jakinarazi behar zaizkien administrazio egintzak argitaratu edo hedatu behar badira, eta zabaldu beharreko informazioak **pertsona jakin batzuen datu pertsonalak** badira, horiek aipatzeko, **ez dira izen-abizenak jarriko, hasierako letrekin egindako siglak baizik**. Horrela **identifikazio zuzenak** egitea saihestuko da.

2 Oro har egunkari eta aldizkari ofizialak jendaurreko eskurako iturriak dira. Beraz, hirugarren pertsonak erabili egin ahal dituzte horietan argitaratzen diren datuak eta ez dute interesdunaren adostasuna eskatu beharrik izango, beti ere interesdunen eskubideak eta oinarritzko askatasunak urratzen ez badituzte. Hori dela eta, argitaratu beharreko dokumentuetan ahalik eta informazio pertsonal gutxien jarriko da, informatzeko helburua betetzeko ezinbestekoa dena bakarrik. Era berean, **zenbait argitalpenetan ohartarazpenak jarri ahal izango dira han jasotako datuak ezin izango direla edozein helbururekin erabili adieraziz, eta bakar-bakarrik erabili ahal izango direla argitaratzeko zeuden helburu zehatz, esplizitu eta legitimoetarako**.

Egunkari eta aldizkari
ofizialetan argitaratzen
diren datu pertsonalak
ahalik eta gehien
murriztuko dira, hau
da, informazio
publikoaren helburua
betetzeko adina izango
dira

3 Toki erakundeak **informazioa eman ahal izango die herritarrei bertako langileei buruz**: lanpostua, telefono zenbakia eta posta elektronikoko helbidea. Horrela, herritarrei argi adierazten zaie norekin jarri behar diren harremanetan gestio jakin bat edo beste egiteko.

50. artikulua. Norgehiagoka prozesuen argitalpena eta datuen babesa

- 1 Norgehiagoka prozeduretan (toki erakundearen zerbitzurako langileen hautaketa eta hornidura, diru-laguntzak ematea eta abar) pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruzko datu pertsonalak argitaratu egin ahal izango dira aldizkari ofizialetan, iragarki-oholetan, bitarteko elektronikoen bidez edo toki erakundearen web orrian, baina beti ere **horrela jasota badago prozedura bakoitzaren araudian**, eta hori horrela izan dadin, onartutako hautaketa-oinarriek edo deialdiek datuak horrela argitaratzeko aukera dagoela jaso beharko dute.
- 2 Zuhurtasunagatik, datu pertsonalak argitaratu behar badira, **datu disoziatuak erabiliko dira edo argitaratzearen oinarrian dagoen helburua bete ahal izateko gutxieneko identifikatiboak**.

Norgehiagoka prozeduretan berariaz adierazi behar da argitaratzen diren datu pertsonalen helburua eta datu horiek ezin direla bestelako helburuetarako erabili

- 3 Edozein kasutan informazio administratiboa goian adierazitako tokietan eta moduan argitaratzen bada, eta administrazioaren jardunak berak hala egin beharra badakar eta argitalpena administrazioa bere eskumenez baliatzeko tresna bat bada, argitalpena horiek ezin izango dira jendearen eskurako iturrien artean sartu, eta, ondorioz, argitalpenak ezingo dira erabili edozein helbururekin eta bakar-bakarrik erabili ahal izango dira argitaratzeko zeuden helburu zehatz, esplizitu eta legítimoetarako. Hori horrela izan dadin, toki erakundeak datu pertsonalak argitaratzen dituenearn argi adierazi beharko zertarako argitaratzen dituen.

4.3. DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEA ETA POLITIKAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

51. artikulua. Toki erakundeko kideek informazioa eskatzea eta datuak babestea

- 1 Korporazioko kide diren pertsona guztiek dute korporazioko zerbitzuen esku dauden aurrekariak, datuak edo argibideak Lehendakaritza-erengandik lortzeko eskubidea, baldin eta toki erakundearen gobernu organoen fiskalizazio eta kontrol eginkizunak aurrera eramateko behar badituzte, horrela baitago jasota Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 77. artikuluan. Zentzu horretan, DBLOren 11.2 a) artikulua ere jasotzen du Udaltzatuko kide diren pertsonen datu pertsonalak ematea ahalbidertzeko adinako babesa.
- 2 Aurreko paragrafoan adierazitako eskubideaz baliatzeko eskabidea, aurkeztu eta hurrengo bost egun naturaleko epean ebatzi beharko da arrazoituta. Eskabideak Toki-korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamendua onartu zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Legean ezarritako baldintzak bete beharko ditu.
- 3 Toki erakundeko kideek esleitura ditzuten gobernu, fiskalizazio eta kontrol eginkizunetarako beharrezkoak diren datu pertsonalak baino ez dira komunikatuko, eta eginkizun horietarako **egokiak, bereizleak eta neurrikoak** izan beharko dira.
- 4 Eman behar zaien informazioak datu pertsonalak badauzka, lehendabizi aztertu egin beharko da ea **datuak disoziatu** daitezkeen, **baina baldin eta disoziazioak ez badu kaltetzen** toki erakundeko kideek esleitura duten **gobernu organoak kontrolatzeko eginkizunaz baliatzeko behar duten informazioa jasotzeko eskubidea**. Disoziazioaren aukera ezin bada erabili, eman behar den informazioaren ulergarritasuna ez duelako bermatzen, informazioa jaso behar duenari jakinarazi beharko zaio bere kargua dela-eta jasotzen duen informazio pertsonal guztiaren gainean zuhurtziaz jokatzeko eta konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra duela.

5 Toki erakundearen gobernu organoen eginkizuna da, ez beste inorena, datu horiek zeintzuk izan daitezkeen baloratzea, eskabidearen betekizunak betetzen diren baloratzea eta eskakizunaren arrazoiak baloratzea.

6 Datuen komunikazioa egiten bada, komunikazioa egiteko, ezinbestean hartu beharko dira toki erakundeak segurtasunaren arloan ezarrita dauzkan protokoloak (DBLOren 9. eta 20. artikulua, Datuak Babesteko Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuarekin bat).

7 Toki erakundeek prozedura bat ezarriko dute eskubide hau erabili ahal izateko. Prozedura horretan zehaztuko dira eskabidea nola egin eta nola erantzun behar den, bai eta erabili beharreko ereduak ere. Dokumentazioa emateko ereduan honakoa gogorarazi beharko zaie toki erakundeko kideei: ordezkarikargua dela-eta jasotzen duten **informazioarekin eta datu pertsonalekin zuhurtziaz jokatzeko eta konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra** dutela, bai eta **kargua utzi eta gero ere**.

Udalbatza osatzen duten kideek kargua dela-eta jasotzen duten informazio pertsonal guztiaren gainean zuhurtziaz jokatzeko eta konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra dute



52. artikulua. Erabakiak argitaratzea eta herritarren parte hartzea toki erakundeetako udalbatzetan

- 1 Baten batek **udalbatzaren erabakien kopiak edo egiaztagiriak** eskatzen baditu, **eman** egin beharko zaizkio, eta hori egiteagatik ez da hausten datu pertsonalak babestearen arloko araudia, **kopia edo egiaztagiri horietan bereziki babestutako datu pertsonalak agertzen ez badira behintzat**, hau da, DBLOren 7. artikuluan jasota dauden datuak ez badira agertzen. Gainontzeko kasuetan, kopietan eta egiaztagiritan jasota dauden datu pertsonalak komunikatzeko, TAOLen 70.3 artikuluan xedatutakoa bete beharko da, DBLOren 11.2a) artikuluekin xedatutakorekin bat.
- 2 Horiez gain, aktaren **kopia soil bat** ere eman beharko zaie eskatzaileei, antolakuntza eta jarduera araudiak (AJA) 229.2 artikuluan ezarritako edukiarekin, baldin eta edukiak ez badio kalterik egiten pertsonen intimitateari; izan ere, horrela eginez gero, ez da urratzen datuak babesteari buruzko araudia. Udalbatzen **akten eduki laburtua jendaurrean jartzeko, kendu egin beharko dira** herritarrei informazio orokorra eskaintzeko **premiazkoak ez diren datu pertsonalak**.
- 3 Akten edukia laburtu eta jendaurrean jartzea, edozein bitarteko erabilita, ez dago datuen babesaren arloko araudiarekin kontrajarrita. Izan ere, akta “laburtuta” jartzeak esan nahi du komeni dela bertatik kentzea herritarrei informazio orokorra emateko premiazkoak ez diren datu pertsonalak, hau da, kendu egin behar direla helburu horretarako egokiak, bereizleak eta neurrikoak ez diren datu pertsonal guztiak, eta aktetan ezin izango dela agertu inolaz ere datu pertsonal sentsiblerik.
- 4 Toki erakundearen **osoko bilkurak** edozein bitartekorekin **grabatzeko** baimena ematen bada, grabazioa eta grabazioaren hedapena eten edo mugatu egin beharko dira intimitate pertsonalari eta familiaren intimitateari kalte egin diezaioketen gaiak eztabaidatzen edo aipatzen diren bitartean.



KASU
KONKRETUAK

53. artikulua. Nola jokatu toki erakundeetan datu pertsonalak tratatzeko orduan gertatzen diren egoera jakin batzuen aurrean

I. Eranskinean daude jasota egoera ohikoenak eta horrelakoetan zer egin daitekeen datu pertsonalak behar bezala babestuz. Zerrenda honek oso izaera dinamikoa duenez eta aztertu gabe dauden egoera berriak etengabe agertzen direnez, Eranskinen bitartez landuko ditugu, xedapen zatia bere horretan utzita.





DATUAK
BABESTEKO
EUSKAL
BULEGOA


54. artikulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

- 1 Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa otsailaren 25eko 2/2004 Legeak xedatzen duenez, DBEB zuzenbide publikoko entea izango da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa izango ditu, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak. Legeak erabateko objektibitatea eta independentzia bermatzen dizkio.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa kontrol agintaritza askea da eta bere ardura da zaintzea euskal administrazio publikoek errespetatu egiten dutela pertsonak duten eskubidea euren datu pertsonalak babestuen izan daitezen

- 2 Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren **egitekoa** da herritarren intimitate pertsonala nahiz familiarena eta eskubideen legezko erabilera babestea, horretarako, datuak babesteko legeria beteko dela bermatuz.

- 3 Beraz, kontrol agintaritza askea da eta euskal administrazio publikoek pertsonen datuak babesteko eskubidea bete dezaten lan egiten du.



55. artikulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jarduerak

1

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak honako eginkizunak ditu beste batzuen artean:

• INFORMAZIOA ETA BABESA EMATEA

Euren eskubideen gaineko **informazioa ematea** pertsonen eta **babesa ematea eskubide horietaz baliatzean**.

• IKERTZEA

Legearen kontrako jarduerak ikertzea eta gertatu diren arau-haustek ebaztea, hala badagokio.

• EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEA

Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakundeek egiten dituzten datu pertsonalen tratamendu guztiak, baina ez pertsona bakoitzari buruzko datuak.

• EGITEN DIZKIOTEN KONTSULTEI ETA TXOSTEN ESKEEI ERANTZUTEA

Pertsonen edo erakundeek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten mota guztietako **kontsultei** eta **txosten** eskei erantzutea.

• INFORMAZIOA ZABALTZEA ETA EZAGUTZA ETA JARDUNBIDE EGOKIAK KUDEATZEA

Informazioa eta prestakuntza sustatzea eta datuen babesaren inguruko jardunbide egokiak zabaltzea, herritarrak nahiz administrazioen zerbitzuan ari diren pertsonak sentsibilizatuz.



ESKULIBURUA
EREDUZKO
ARAUBILDUMA
BAT DA

56. artikulua. EAEko toki erakundeen Ereduzko Arau Bilduma

- 1 Jardunbide Egokien Eskuliburu honen izaeraren oinarrian dago EAEko toki erakundeen Ereduzko Arau Bilduma izatea.
- 2 Jardunbide Egokien Eskuliburu honen helburuak dira, batetik, datu pertsonalak babestearen arloko araudian ezarritakoa egokitzea EAEko toki erakundeek egiten dituzten tratamenduen berezitasunetara, eta bestetik, toki erakundeetan eta toki erakundeen zerbitzura lan egiten duten pertsonengan datu pertsonalak babestearen arloarekiko kontzientziazioa sustatzea.

Jardunbide Egokien Eskuliburu honen helburua da datu pertsonalak babestearen arloko araudian ezarritakoa egokitzea EAEko toki erakundeek egiten dituzten tratamenduen berezitasunetara

57. artikulua. Erakunde sustatzailea, gordailua eta argitalpena.

- 1 Euskadiko Udalen Elkarteak (aurrerantzean EUDEL) egin eta sustatu du Jardunbide Egokien Eskuliburua hau, bere eginkizunen artean dagoelako bertako kide diren udalen interes orokorrak babestea eta ordezkatzeta.
- 2 Jardunbide Egokien Eskuliburu hau Datuak Babesteko Euskal Bulegoari aurkeztuko zaio, aztertu dezan eta egin beharrezko lege egokitzapenak proposatu ditzan, eta Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzearen gaineko ebazpena eman dezan.
- 3 EUDELe bere gain hartuko du Jardunbide Egokien Eskuliburu honi behar besteko publizitatea emateko ardura. DBEBk, bere aldetik, Bulegoaren web orrian argitaratuko du, inskripzioa egin bezain pronto.

4

EUDELeK honako betebeharrak izango ditu:

- **Jendearen eskura jartzea** EUDELen **web orrian** Eskuliburuaren edukia, eranskinak eguneratzea, atxikitze prozedura eta betetzeari buruzko bermea, bai eta atxikitako toki entitateen zerrenda ere.
- **Urteko memoriaren bidez, honako informazioa helaraztea DBEBra:** Eskuliburuaren zabalkunderako eta sustapenerako egin diren jarduerak, bertan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko egindako jarduerak, betetzea dela-eta izapidetu diren erreklamazioak eta kexak eta garrantzia izan dezakeen bestelako edozein informazio.
- **Aldian-aldean ebaluatzea** Eskuliburuaren eraginkortasuna eta herritarrek Eskuliburuarekiko duten asebetetze maila.
- **Informazioa erraz eskuratzeko moduan jartzea** ezgaitasunen bat izateagatik informazioa atzitzeko zailtasunak dauzkatenentzat.

58. artikulua. Jardunbide Egokien Eskuliburu honi atxikitzea

1

EAEko edozein toki erakunde atxiki ahal zaio Eskuliburuari. Hona hemen atxikitze prozedura:

- Atxikitze erabakia hartzea eta erantsitako ereduak egokitzea, hala badagokio, dena delako toki erakundearen egoerara.
- Atxikitze erabakia EUDELi jakinaraztea.

2

Atxikitako toki erakundearen zerrenda eguneratuta izan beharko du EUDELeK eta DBEBari eman beharko dio. Zerrenda hori Eskuliburuaren **VI. Eranskinean** jasoko da Erregistroko inskripzioa egin eta sei hilabeteko epean.

59. artikulua. Eskuliburu edo Ereduzko Arau- bildumari atxikitzeako erabakian hartutako betebeharrak betetzen direla gainbegiratzeko prozedura

Gainbegiratzeko prozedura eta zehatzeko araubidea ezarriko dira atxikitako toki erakundeek hartzen dituzten betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko. Horretarako, lan talde bat eratuko da atxikitako toki erakundeen artean, eta lan taldearen zeregina izango da, indarraldiaren lehendabiziko sei hilabeteen barruan, prozedura horien erregulazioa proposatzea, gero Eskuliburu honen eranskin moduan aurkezteko.

60. artikulua. Datuen babesaren arloko informazio eta prestakuntza jarduerak

1

Atxikitako toki erakundeek konpromisoa hartzen dute bertako langile guztiei zuzendutako prestakuntza jarduerak eta jarduera informatzaileak antolatzeako aldiro-aldiro, eta lehentasunez datu pertsonalak edo datu sentsibleak tratatu ohi dituztenentzat.

2

Era berean, bertako langileen artean datuak babestearen arloko printzipio nagusiei buruzko, haien betebeharrei buruzko eta herritarren eskubideei buruzko informazioa ematen duen dekalogo bat banatzeko konpromisoa hartzen dute. Ondorio horretarako, **II. Eranskinean (M17)** Dekalogo Eredu bat aurkezten da.



61. artikulua. Jardunbide Egokien Eskuliburuari atxikita dauden administrazioak identifikatzeko konfidentzialtasun *zigilu* *bat ezartzea*

EUDELek atxikitako toki erakundeen arteko lan talde baten eraketa koordinatuko du honako jarduerak gauzatzeko:

- Eskuliburu honi atxikita dauden toki erakundeek identifikatzen dituen **konfidentzialtasun zigilu** bat zehaztea kalitatearen kudeaketaren hedapenaren arloan lan egiten duten erakundeekin eta DBEBrekin lankidetzan.
- **Diru-laguntza deialdi bat** egiteko proposamen bat zehaztea diru eta giza baliabide gutxi dituzten toki erakundeentzat, datu pertsonalak babestearen arloko jardunbideak hobetzeko.
- Diru-laguntza deialdi bat egiteko proposamen bat zehaztea Eskuliburuari atxikita dauden toki erakundeei zuzenduta, honakoak ezartzeko: egokitze-egitasmoak, prozeduren dokumentazioa eta jarduera informatzaileen eta prestakuntza ekintzen plangintza.

AZKEN
XEDAPENA.
INDARREAN
SARTZEA ETA
EGUNERATZEAK

1. Indarrean sartzea

Jardunbide Egokien Eskuliburu hau Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Erregistroan inskribatu eta bi hilabeteko epean sartuko da indarrean.

2. Eguneratzeak eta aldaketak

- Jardunbide Egokien Eskuliburu honen **xedapen zatia aldiro-aldiro eguneratu beharko da**, poliki-poliki egokituz joan dadin berrikuntza teknikoetara eta datuen babesaren arloan gertatzen diren lege aldaketetara.
- **Eranskinak** ere etengabe eguneratu beharko dira, kasu edo eredu berriekin.
- EUDELen ardura izango da xedapen zatia eta eranskinak eguneratzea eta horiek DBEBri eta atxikitako toki erakundeei jakinaraztea.

